


KarKara

G3A 63. zenbakia

Orio eta Aiaiko aldizkaria

1997ko San Pedro Jaiak

A photograph of a harbor at sunset. The sky is a vibrant orange and red. In the foreground, several fishing boats are docked, their forms silhouetted against the water. In the background, a town with stone buildings and a church spire is visible on a hillside. The water reflects the warm colors of the sky.

SAN PEDRO 97

GAIA: Ameriketara joan nintzan • **AIA:** Erromeria Aristerrazun

Kultura banatzen dugu.



Gozamena banatzen dugu.



Alaitasuna banatzen dugu.



Osasuna banatzen dugu.



Ilusioa banatzen dugu.



Etorkizuna banatzen dugu.

Urte osoan irabaziak banatuz.



kutxa

gipuzkoa donostia kutxa
caja gipuzkoa san sebastián

Karkara

Kultur etxea
20810 ORIO
Tel. 83 15 27

Lege gordailua
SS 346/90

ISSN
1132-1105

Tirada
2.500 ale

Zuzendaria
Miren Etxeberria

Erredakzio taldea
Miren Etxeberria,
Iñigo Fernandez,
Iakes Goikoetxea, Ana G. de
Txabarni, Ana Iturain
Iñaki Iturain, Ainara Peña,
Idoia San Sebastian,
Jabier Zabaleta

Aiako erredakzioa
Eli Lasa

Publizitatea
Miren Etxeberria

Kolaboratzaileak
Jose Alkain, Arreta Kultur
Taldea, Iñaki Gurmuxaga, Isidro
Lertxundi, Jokin Salsamendi

Argazkiak
Ana G. de Txabarni

Azaleko argazkia
Juan Ramon Llavori

Azken orrialdeko marrazkia
Rakel Nacenta

Banatzailea
Miguel Angel Sanz

Inprimategia
Gertu Koop. E. (Oñati)

4 GUTUNAK

5 HERRIAN GALDEZKA

Zer falta eta zer soberan herriko festetan?

6 HERRIKO KONTUAK

11 KIROLAK

14 IRITZIA *Jokin Salsamendi*

15 AIAKO KARKARA

ERREPORTAJEA *Erromeria Aristerrazun*

19 GAIA *Ameriketara Joan nintzan*

22 ELKARRIZKETA *Jose Julian Olasagasti*

24 DISKO KRITIKA *Aisterrazu da plaza*

25 GURE BASERRIAK *Txabola Berri*

26 DENETIK PIXKA BAT

29 KOLABORAZIOA *Ernioko gurutzeak 50 urte*

30 AZKENA

31 GUTUNAK (*jarraipena*)

1997ko PUBLIZITATE PREZIOAK

| | |
|----------------------|------------|
| Modulo bat..... | 1.500 PTA |
| Bi modulo | 3.000 PTA |
| Hiru modulo | 4.500 PTA |
| Lau modulo | 6.000 PTA |
| Sei modulo | 9.000 PTA |
| Orrialde erdia | 13.500 PTA |
| Orrialde osoa | 27.000 PTA |

Prezio hauek zenbaki baterako balio dute. Publizitatea urteko zenbaki guztietan jarri nahi dutenei % 10eko deskontua egingo diegu prezio hauen gainean (urtean hamar zenbaki argitaratzen ditugu).

Orio eta UEMA

Guk, behean izenpezen dugu: *Orioko talde eta erakundeak ordezkaririk,*

HONAKO HAU ADIERAZTEN DUGU:

Herri euskaldunak oso inportanteak dira euskararentzat. Garrantzi horretaz jabetuta, herri euskaldun batzuek Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea (UEMA) sortu zuten orain dela urte batzuk eta, hurrezkeraztik, elkarre hori ezinbesteko erreferentzia bihurtu du euskaltzale guztientzat. UEMAren helburua garbia da: *bikien arretza mankomunitateko herritarren bizitza sozial eta publikoa euskaraz izan dadin; eta, etorkeran, euskara nagusi izango den lurpene bat osatzea.*

UEMAren oso proiektu garrantzizkoak da euskaldunontzat. Izan ere, euskarak aurrera egingo bada, gure herri euskaldun hauek egingo du. Erantzakizun handia dugu, hortaz, herri euskaldunetan bizi garen euskaltzaleok.

Ori ere UEMAren partaide izatea nahikoa gurek. Euskararen guztari tiraka ikusi nahikoa gure herria; eta ez atzetik doala, herristan.

Udalari berri ere in egingo hokeela uste dugu UEMA sartzen, bultzada emango bailioke euskararen erabilerari udalaxe buruz. Garrantzizkoa dela uste dugu Udalak erabat euskaraz funtzionatzen eta herritarontzat eredu izatea. Hori lortzeko lagungarri izateko UEMAren partaide izatea.

Herri guztia dela eta,

UDALARI HONAKO HAU ESKATZEN DUGU:

Udalari Euskaldunen Mankomunitatean (UEMA) sar dadila eta ekin diezaiola euskararen aldeko ekarriari, mankomunitateko beste herriekin batera.

Izenpezen dugunok, eta ordezkatzen ditugun talde eta erakundeak, prest gaude laguntza emateko Udalari, bide horretan aurrera egitea erabakitzen bada.

HERRI IKASTOLA, KARRARA TALDEA, ORIKO EHE, ZARAGUETA ESKOLA

Zimaurre zabaltzea errezago...?

Alderdi bateko politikoa da. Euskera ikasteko asmoz, *aldi baterako, baserri batera* dago. Bertako nagusiek kaxan egiten du lan. Janitxo politikari eguna luze egia egiten zaito eta lanen bat eskatu du etxeko nagusiarri.

Gure baserriarrek, miltziara eta udar-

jotzalek izaki, zera esaten dio: «zabaltzeko bazen zimaurre soroan.»

Esan eta egin. Nagusia, lanetik etorrira, sinistu ezinik gelditzen da soroa begira, *«Janitxo, hain zexkak dator eta egoki eguzt lana; zimaurre zabaltzale bezain orain bada politikari ez duk nolamalikoa.»*

Hurrengo egunerako beste lan bat eskatzen dio politikari *«baserriarrei. Eta baserriarrei: «ganbaran palata sail bat dago nahasiari, apartatuko bazenituzko handiak alde batera eta taldeak bestera.»*

Lantegiak etxeratu denon gure nagusia, ganbarara igo eta hant ikusi ditu palata taldeak ezkerreko alorrean eta handiak eskubidean. Aragoi tartekoekin zen. Ez talde eta ez handi. Zer egin? Algora gozoz baserriarrek esaten dio: *«gizona, horregatik etzazula buru haieserik izan, berdin zaito batera edo bestera botata ere.»*

«Zuk neri erakutsi, dio politikari, utz nazazu pakean, aragoi hau nik neuk konpandu behar dut. Eta baserriko nagusiak honela dio, bere baitan: «aragoi konpandua baino errezagoa duk zimaurre zabaltzea.»

Gure Orioko herri nosterik ere *«kaltu»* bereak; lantegiak nan, nola?, arantzalde portua, kirak portua, ikastola, kirakortegia, guztietan berziketa...

Aragoi aurrera zera zaila den elkarriketan, elkarri begirunea galduta gabe, nortere irizgia bakarrik ez dela egin hitza sinetsiz, pakean konpandua bidetzen. Bai, mila aldiz errezagoa da **ARAZOEN AURREAN ZIMAURRE ZABALTzea** (elkarri zerrahi esateu eta iraintzea, herriaren onari baino alderdiari begiratzea...).

Zimaurre zabaltzea errezagoa da. Baina bestea da egin beharrekia.

JOAKIN AROSTEGI

Bezere misterioitsuari

Zuri, bezere misterioitsuari, *«Birik tabernari buruzko historia piska bat kontatu nahikoa dugu ahal den laburren.»*

Bai, historia orain dela urte pare bat hasi zen. Taberna hau festa batzutan zabaltu zuten eta bat zabaltu ere!!! Zabaltzeko inolako dokumenturik gabe — alkatearen hitzeko batmenarekin solik — Momentu honetan daukan kategoria dela eta, ezin du inolaz ere musika aparatuek eduki. Inoiz ondoren egin zituzten, debekatuta duten musika aparatuari daguzkien insonorizazio frogak, eta zer? Pisu batean legeak dioena baino dezibelo jehingo erizulen ziren. Baina dirazkera

guzti honik ez du inolako garrantzirik. Bi urte hauetan aparatuek horrek sortu izan dituen zarata, burrua eta bibratzen jasan behar izan ditugu. Honen ondorioz etorri dira etxebizitzetako hainbat jabeen kezu eta salaketak.

Gaitzi iruditzen al zaitu gure eskubideak zapalduak direnean *«Ertzaintzari deitza? Ertzaintzari deitzen dianak eskubide osoa du hori egiteko. Ala zer pentsatzen duzu? Gaitzeko hiru edo lau urte jaitzi, Ertzaintza deitu eta kalera irten denak, bera izan dela esateko, gustora egin duela hori?»*

Zergatik utzi dio alkateak musika aparatua edukitzea? Guk alkatearekin hainbat bilerak izan eta gero ez dugu kasurik egin, baina egin dugu arpegira! Abokatu bat kontratatu behar izan dugu. Ondorioz Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurugiro Saileko Zuzendaritza Orokorrekin hitz egin dugu alkatearekin; musika aparatua kentzen edota taberna iten.

Bestela, zergatik gaur egun — 1997ko ekainak 7 — ez dago taberna honetan musika aparatuek? Legea bete delako, besterik ez.

MENTXU OLIDEN-HARRITZ AGUIRRE

Ikastolako guraso zaren horri

Zu eta ni, biok, gara orotarak eta asko maite dugu Ori.

Zuk eta nik, biok, nahikoa izan ditugu gure seme-alabek herrian eskolarizatu.

Zuk eta nik, biok, defenditzen dugu gure seme-alabek euskaraz ikastea eta euskal kulturari murgiltzea.

Zu eta ni, biok, diru publikoaz baliatzen gara berziketa euskaldun hori bidertatzeko.

Eta gure seme-alabek, herriko eskola publikoan ikasteagatik, zapalkuntza jasan behar!

Ez dago eskubiderik!

Utziatuz kasu bizitzent!

M. J. AZKUE

Euskaldunok elkarri mokoka

Ez da berria. Aspaldiko kontua da. Gero ere, zorizarez, horrekin izango dela ematen du. Antzinatik dator elkarren arteko borroka hori. Euskaldunen patua da, dirudienez. Herri etaneri bat sortu

AZKENBIGARREN ORRIALDEAN SEGITZEN DU...

Zer falta eta zer soberan herriko festetan?

Urtero herriko festak hurbiltzean bilerak egiten dira Udaletxean festan programa antolatzeko. Bileretan herriko hainbat taldek adostasunera iristeko ahaleginak egiten dituzte. Baina gero jaiak gainean ditugunean batzuk kezatu besterik ez dute egiten. Beraz, jakin nahi izan dugu herritarrek zer aldatuko luketen festa programan.



IÑAKI MAKAZAGA
14 urte

Hamalau urteko gazteboeritzat gaitu gure dago, eta Oñe padak edota hem kirolak antolatu behariko irateke. Niretzat, diru erakuntzak egiten gaitatu baino hobeto irizateke animazio gehiago izatea. Ezate baterako, su artifizialak hobekak izatea.



TRINI CALLE
13 urte

Hamalau urteko gazte eta zaharretaz gehiago pertsonatzea eskatuko nuke. Adibidez, elkartzen diren munitateak adis gurtetara egokituz. Hain bazkaria edo alaria eta egunez egiten diren elintzak ondo antolatuta egotea gaitatuko irizateke.

MARI MAR ARRUTI
34 urte

Festa garaian kaketan organitzazio gehiago egon behariko luke, hau da, urteaz herria sartzeko kristoren buelta emari behar da, eta ez zait gehiegi gurtatzen. Elintzak ondu egotzetan eta gara desberdinetan izan behariko lukete. Eta, azkenik, kanpotik ekarri beharrean herriko muskaririk jo behariko lukete.



HARITZ OLÁIZOLA
18 urte

Nire usuez jaietan soka muturrak tarteko bat eduki behariko luke oso dibertigarria delako eta jendeak ondo pasako lukeelako. Bestalde, kuadrilen arteko batel estropadak ere jaietako egitarauetan egon behariko lukeela uste dut.



**Orioko
Ogia**



Ibai-ondo
Supermerkatua
Telefonoa: 83 47 50

ertza
Usaindegia
Telefonoa: 83 09 29

iTZiAR
Kirolak
☎ 83 31 03

AZKUE
Itsas-gaiak
Eusko Gudari, 12
☎ 83 25 55

Diputazioak hondartzako plan osoa onartu du

Malekoia datorren urteko ekainean bukatua egon daitekeela uste du alkateak

Orioko Udalak hondartzako plan osoa aurkeztu bazuen ere Gipuzkoako Foru Aldundiak zatika onartu du: 1995ean malekoia, 1997ko otsailen kirol portua eta ekainaren hasieran, orain arte zintzilik egon ostean, zona erresidentziala. Zona erresidentzialaren proiektua onartzea jurtsezkoa da Udalarentzat, gainontzeko obrak aurrera ateratzeko diru iturri nagusia baita.

Diputazioaren onarpenaren ondorioz, Jose Migel Makazaga alkatearen aurreikuspenen arabera 1998an posible izango da hondartzako lurrak eta partzelak interesatzen zaien eskainitzea. Alkatearen iritziz, zona erresidentziala jurtsezkoa da gainontzeko obrak aurrera ateratzeko. Hondartzako planari esker posible izango da polikiroldegia egitea eta Eusko Gudarri berritzea, hori guztia zorroztan sartu gabe.

MALEKOIA

Bestalde, malekoia egiteko lanak laster emango zaitzako enpre-

sa bati, Udalak eskatu da obrak epe motzerean egingo dituen enpresari emateko. Alkateak dioenez, obrak izugarrian bertan has daitezke. Lan handiak traxelan egingo lirateke eta malekoia bukatua egon daiteke 1998ko ekainean.


KIROL PORTUA

Kirol portuaren proiektua egina eta bide administratiboa oso aurreratu dago. Eusko Jaurlaritzaren lehen tasunen artean ez dagoen arren, Makazagak uste du gauzak behar bezala egin direla eta 1998an martxan jar daitekeela.




Goiko argazkian hondartzako ingurunea ikus daiteke. Planaren ondorioz bere itxura asko aldatuko da hurrengo urteetan.

Hondartzako etxeetako desjabetzeek hainbat ika-mika sortu duten arren, alkateak uste du bidetik onena hartu dela, "ondasun guztiak bi aldeak ados jarriz lortu baitira". Udalak berrehun milioi pezeta gastatu ditu hondartzako etxe eta lurren jabetzak erosten.



ERRUSTA

Kriston
bokadillok!!



KoastA

Lasaitasuna eta giro ona

Jazz argazkiak Salatxon

Manuel Rodriguezen txuribeltzeko jazz argazkiak ikusi ahal izango dira Salatxo tabernan uztaillaren 28a bitartean. Argazkiak Euskal Herriko jazzaldi ezberdinetan ateratakoak dira.

Musikari dagokionez, oraingoz udako kontzerturik finkatu ez bada ere, bai edo beste eskaintzeko asmoa badute Salatxon. Ekaineko bi jazz kontzertuek arrakasta handia izan zuten.



Gaur egun herriko ur fekalak ibaira isuritzen dira zuzenean.

Rikardo Arregi saria lakes Goikoetxearentzat

lakes Goikoetxeak, KARKARAKIDE eta EGUNKARIAKO kazetari oriotarrak, Kazetari Berrien saria irabazi du. Andoaingo Udalak antolatutako Rikardo Arregi Kazetaritza Sarien barruan. Lehen aldida Kazetari Berrien saria ematen dutela antolatzaileek eta lakesez eskuratu du Egunkariako errepor-taje batengatik.

Orioko ur fekalak Zarauzko depuradorara eramango dira

Aia behekaldeko eta Orioko ur fekalak Zarauzko depuradora eramango dira hodian bitartez, han behar bezala tratatzeko. Hasieran Orioko Udalaren asmoa depuradora erostea bazen ere, prezio garestiak —700 milioi pezeta— bestelako irtenbideak bilatzera behartu zuten. Zarautzek ere depuradora behar duenez, bi Udalek erabaki zuten Orioko ur fekalak jaso eta hodi batzuren bitartez Zarauzko depuradora eramatea.

Gaur egun herriko ur fekalak zuzenean ibaira isuritzen dira, baina hodi horiek hodi nagusi batekin lotu eta bomba baten bitartez bideratuko dira autopista azpian Zarauzko depuradorara. Obren aurrekontua mila milioikoa da eta uztailean emango zailo enpresa hain egiteko ardura. Irailerako zatirik konplexuena bukatua egotea espero du alkateak. Orioko kale gehienek, Eusko Gudarik ezik, bereiztuak dituzte ur fekalen eta plubialen hodiak.

Gazteak Parisera eta zaharrak Saloura

Ekainean oriotarrak bidaiari ibili dira Katalunia eta Frantzia zehar.

Aldi batetik, Indar Gym gimnastoak antolatuta, bertan kirola egiten duten hainbat haur eta zenbait guraso Parisen izan ziren, Eurodisneyri, Eiffel dorrean...

Besteetik, Zaharren Babes Lekuak antolatuta, herriko jubilatuek astebete pasa zuten Salourri. Bidarako izena emateko istiluak izan ziren jubilatuen artean, ilara kontuak zirela eta. Zenbaitek gaua eta guzti pasa zuten kalean lekua zurtatuzeko asmoz.

Iskanbilak iskanbila, primeran ibili dira eta berriro joateko irrikitan dira; baina haiekako batzuk esan dutenez, izena emateko sistema aklatu egiten beharko litzateke, zozketa bidez egiten eta kanpoan gelditutakoet hurrengo bidaiari aseguratu.

Juantxo HARATEGIA
Telefona: 83 18 37

URAITZ LURRINDEGIA
KIROMASAJA ESTHETICIEN
ENDAIA, 3 TFNOA 83 18 97

AHOLKULARITZA
Fiskala, Laborala, Kontablea
ASEGURU ARTEKARIA 
Eugenio Garmendia
Ibai Ondo, 1 Tfnoa: 83 44 66 - 83 49 17

SARASUA KERAK

P.S. 121 01
AV. LEITANZA 21
30840 - ORO
094 44 44 44

SARASUA ERRETEGIA
Plater bereziak: — Arrain zopa
— Arrain eta haragi erreak
Eusko Gudari, 29
Tfnoak: 83 00 05
13 25 32



Surfa izango da aurtengo San Pedro festetako protagonistetako bat. Olatuak lagunduz gero, ikuskizun ederra ikus ahal izango da hondartzan.

Tanborrada, herri bazkaria, surfa eta goitibeherak San Pedroetan

Aurtengo San Pedro jaien egitarua begiratu gero lau berrikuntza nagusi antzeman daitezke. Alde batetik, datorren ostiraleko ikurrin altxatzean izango den tanborrada. Tanborrada ohikoa da Errege Egunean, baina ez festetan, eta aurten gazte talde bat tanborrada antolatzen animatu da.

Bestetik, aurten orain arte egin den urteetan arrakasta gutxi izan zuen beste ohitura bat berreskuratuko da, herri bazkariarena alegia. Janaria norberak eraman beharko du. Sagardoa, mahaiak eta aukiak, ordea, antolatzaileen kontu.

San Pedro jatak udan ospatzen direnez, propio udakoa den surfak ere txoko garrantzitsua du egitarauan. Larumbatean eta igandeak surf txapelketa jokatu da egun osoan hondartzan.

Aurten lehengo beste ohitura bat ere berreskuratuko da, aspaldiko partez goitibeherak egingo baitira San Martin ermitatik behera. Ziru sekulako ikusmina sortuko dutela.

Gainontzean aurtengo egitarauak ez dauka bestelako sorpresa nabarmenik: helduen dantza askatuko lehen txapelketa, bideo-karaoketa...

Ostargiren erakusketa eta ikastaroa

Ostargi emakumeen eskulan taldeak erakusketa irekiko du ekainaren 28tik uztailaren 1 arte. Erakusketa goizez eta arratsaldez bisitatu ahal izango da, lehen egunean ezdik, arratsaldez bakarrik irekiko baitute.

Ostargik autoestimari buruzko ikastaro bat antolatu du irailtik aurrera, norberak bere burua ezagutzen eta onartzen ikasteko asmoz. Ikastaroa irailaren 24ean hasiko da eta bi astetik behera, asteazkenetan, hamabi aste iraungo ditu.

Ikastaroa Kultur Etxean eskainiko da eta bere prezioa 5.000 pezetakoa da. Taille-errea bi terapeuta jardungo dira eta Ostargiren asmoa 16-18 lagun bitarteko talde bat osatzea da. Interesatuak izena eman dezakete Ostargik festetan antolatuko duen erakusketan.

URBAZTER ASEGURUAK

San Nikolas kalea, 6
Tel.-Fax: 13 33 14

- ▶ Transfrentziak
- ▶ Lizentziak
- ▶ Eskriturak
- ▶ Penalak
- ▶ Errenta Aitorpenak
- ▶ Bidaiak, e.a.

Carmen

ARRAINDEGIA

.....
Telefonoa: 83 05 37

TXOMIN arraindegia

Tfnoa: 83 27 47



R A M E R O

Telefona: 83 10 48

25 gazte Saint Ciersera joango dira uztailen

Herriko 25 gaztek Saint Ciersera joateko aukera izango dute uztailaren 21etik 27ra. Gazteek 15 eta 17 urte bitartekoak izan behar dute eta 15 edo 17 urte beteak izan behar dituzte.

Izena Udaleko Gizarte Zerbitzuen departamentuan eman daiteke ekainaren 23tik uztailaren 11 bitartean. Beharrezkoa da NANA aurkeztea.

COPE irratiak Arraun Elkartearen saritu du

COPE irrati kateko Gipuzkoako emisorak Verano 97 izeneko saria eman zion Orioko Arraun Elkarteari egiten duen lanagatik eta laz egin zuen denboraldi bikainagatik.

Orietarrez gain Gipuzkoan oso ezagunak diren kirolari, sukaldari eta bestelakoek ere eskuratu zuten saria.



Harribileko dantzariak giro aparta sortzen dute San Juan bezperan egunean.

Orio sorgindua San Juan bezperan

San Juan bezpera urteko egunik luzeena da eta Orión, lastik aurrera behintzat, sorginek herriko kaleak hartzen dituzte eta suaren inguruan dantzatzen eta kantatzen dute. Ekimena laz sortu zen eta herriko hainbat gazte animatu zen Orioko akelarre berezian parte hartzera. Plazan ere jendetza bildu zen herriko sorginen *sorginkeriak* ikusteko asmoz. Haurrengan sortu zuten ikusmin eta harridura gehien eta bat baino gehiago beldurtu ere egin zen.

Iazko arrakasta ikusita, Harribilek aurten berriro ospatu zuen urteko gaurik magikoena. Orain arte Orión auzoetako suak izaten ziren Sanjoanetako protagonista nagusiak, baina Harribilekoek galza eta piperra jarri diote aspalditik gure herrian San Juan Berde esaten zaien gauari.

Llavorik irabazi du berriro Argazki lehiaketa

Iaz bezala Juan Ramon Llavori zuzmalarrak irabazi du Orioko Udalak eta KARKARA aldiakariak antolatutako Argazki lehiaketa.

Aurterngo partaidetza lazkoa baino kaskarragoa izan da, eta hiru lagun baino ez dira aurkeztu lehiaketara. Epaimahaiak bigarren saria hutsik utzi du, eta aurkeztutako hirurek irabazi dute saria. Lehengoa, Juan Ramon Llavorik; hirugarrena, Xume Elizalde oriotarrak; eta, laugarrena, Enrike Ibabe usurlildarra.

Badrudi Llavorik oso gustokoa duela Orioko ibala, bai lazkoa eta bai aurterngo fotografietan — portadetan azaltzen dena — gai berbera aukeratu baitu.

Argazkigintzaz gain, Llavori ezaguna da oriotarrentzat Preferenteko taldea entrenatu baitu bolada batez.

TANATORIO ZARAUTZ

 BI MUNDUEN ARRIAN TALDEA

Hileta eta zerbitzu orokorrak

- ✓ Donostia eta probintziako ospitaleetan
- ✓ Alderoko zerbitzuak
- ✓ Belatorio gelak
- ✓ Korolak, eskelak, tramitazioak...

Araba Kalea, 35 Zarautz
Tel/Fax: 13 22 52

ANARR 

Kirola egiteko eta denbora libreko arropa eta ekipamenduak

tfnoa: 83 21 60

Shock!

Peluseria-Estetika

☎ 13 09 01

ELIZALDE

Igeltseritza

Lan Rustikoak

Arkitetko eta lanerako
 Testuak
 Egur eta harmigotzko
 estrukturaen berriketa
**Eraerretze lanak haserri
 eta etxebizitzetan**
 Igeltseritza orokorri
 Arkitekto teknikoak
 egindako proiektu eta
 ikerketak

☎ 83 11 15 ☎ 13 49 09
 ZARAUTZ ORIO
 Maria Elxetsuki 1, B 3. Kalea, 2 1. esk.

UDA EUSKARAZ

Verano en euskara
L'été en basque
Estiu en euscail
Verán en vascó
Summer in basque
Estatu in lingua basca
Sommer auf Baskisch

'Uda euskaraz' liburuxkan zortzi hizkuntzetan azaltzen dira eguneroko jardueran moldatzeko oinarritzko informazioa: euskara, gaztele-
ra, frantsesa, katalana, galiziera, ingelesa, alemaniera eta japoniera.

'Uda euskaraz' liburuxka kaleratu du Euskara Batzordeak

Udaleko Euskara Batzordeak *Uda euskaraz* liburuxka kaleratu du Donostiako Euskararen Udal Patronatuarekin batera. Liburuxkan atzerriarrek edo euskara ez dakitenek gauzak euskaraz eskatzeko jakin beharreko oinarritzko informazioa azaltzen da zortzi hizkuntzetan: euskara, gaztele-
ra, frantsesa, katalana, galiziera, ingelesa, italiara, alemaniera eta japoniera.

Liburuxkan oportetako eguneroko jardunean moldatzeko funtsezko formulak eskaintzen dira: agurrak, esamoldeak, oinarritzko zerbitzuak eta lekuak, astegunak, hilabeteak, dirua adatzeko

formulak, zenbakiak, hoteletan zer nahi den zehazteko bideak, edariak, janariak eta Euskal Herriaren banaketa administratiboen zehaztasunak.

Euskaraz ez dakienak euskaraz hitz egiteko edo erlazionatzeko hiallagurria izateaz gain, euskaltu-
nek ere erabil dezake beste herrialde batzuetako jendearekin harremanetan jartzeko, bat Euskal Herrian bertan, haita atzerrian ere. Liburuxka patrikan eramateko modukoa da, edozein estu-
aldiratik berehala ateratzeko, oso praktikoa, eta azalpen argi eta zehatzez hornitua dago.

handik eta hemendik

JON SARASUA
Bertsolaria

"Bizitzarentzat garrantzitsua antzitasuna dela ulertzen badugu, ulertuko dugu euskara eta antzeko baloreak garrantzitsuak direla mundu guztiarentzat".
(Egunkaria, 97-05-16)



MANUEL LASARTE
Bertsolaria

"Bertsotan nire kasa egindakoarekin moldatu naiz. Ez dut sekula liburu bat irakurri, nirekotasunarekin bakarrik ibili naiz eta ez dut inolako damunik".
"Gaur egungo bertsokak entzuten jarri eta sofitru egiten dut".
(Egunkaria, 97-05-27)



RICHARD SERRA
Eskultorea

"Jorge Oteiza bizi-
lagoen munduko eskultorerik onena da".
(El Mundo, 97-05-30)

LIZASO

**ERLOJU eta
BITXI DENDA**

Orio, Kaia 5 Tfnoa: 83 10 90
Zarautz, Ipar 6 Tfnoa: 13 17 43

ORIO

AUTO-ESKOLA

Telefonoa: 83 57 19

EROSLE

AUTOZERBITZUA

TRAGOXKA

PUB

Aritza, 11
© 13 08 25

Juan Albizu
elektragailuak

Eta orain
Sukaldeko
altzariak!

Tfnoa: 83 12 49

Arraun Elkarteak hiru garaipen lortu ditu Euskadiko txapelketan

Oriok hiru garaipen lortu zituen ekainaren 22an Legutioako uretan jokatuak. Euskadiko aulki mugikorreko txapelketan. Garaipenak seniorren eta jubentzen zortzikoek eta seniorren laukoak lortu zituzten. Euskadiko Txapelketaren ostean Espatniakoak datorren larunbatean eta igandean jokatu da Legutioan bertan—ekainaren 28 eta 29an—.

Euskadiko Txapelketaz gain, oriotarrek sei garaipen lortu zituzten ekainaren 15ean Legutioan izandako estropadan: seniorren lemazaindun laukoak eta zortzikoak, kadeteen zortzikoak, eta skiff-en hiru probatan — Kristina Kortak, Jon Redondok eta Eder Etxeberriak—.

Argazkian ikuslerik ezaztzen ez bada ere, urtero bezela, San Pedro aurreko azken igandean frontoia bete egin zen herriko pelota txapelketako finalak ikusteko.



Ilarramendi eta Berasaluzek irabazi dute pala txapelketa

Migel Ilarramendi eta Migel Mari Berasaluzek irabazi dute hiru hilabete iraun duen herriko pala txapelketa. Finalean 30-26 gairiditu zituzten Jose Antonio Beldarraín eta Iñaki Iturain. Partidua oso gogorra izan zen eta azken tantuak arte inork ez zuten lortu alde nabarmenik. Ilarramendi eta Berasaluzek, ospaldi Orion bizi diren getariarrek, seigarren aldiz jantzi dute txapela.

Pala txapelketa oso arrakastatsua izan da eta hamabi bikotek parte hartu dute.

Pala txapelketaz gain, ekainaren 22an gaztetxoeri eskuzko finalak ere jokatu ziren. Nesketan Mateos-Garmendiak 16-5 irabazi zieten Edoain-Sukiari. Mutiletan, benjaminetan, Larburu-Urdangarinek 16-10 Solaberrieta-Zabillagari; alebitan Galarraga-Peronak 16-12 Murgiondo-Urangari; eta infantiletan Iribar-Ruizek 16-5 Galarraga-Amenabarri.

Gaztetxoeri mailan partehartzaile ugari izan dira eta pelotak etorkizuna duela esan daiteke.

ARGI-GAIAK

elektrizitatea

Iturbide, 11 Tfnoa: 83 17 74

LAIARI

izozkiak

Eusko Gudari, 42 Telefonoa: 13 42 64

ALUYOLA, S.L.

LEIHOAK, ATEAK, TERRAZAK,
BAINU MANPARAK.

P.V.C., ALUMINIOA,
POLIURETANOA

KOLORE AUKERA UGARIA

Fatima Azpiroz Ibarreta


Jaizkibel plaza, 8 LASARTE
Telefonoa: 36 22 77

KOLON TXIKI

* PINTXOAK * KAXUELITAK *
EGUNEKO MENUA

☎ 83 00 44 / 13 20 26

Herriko Plaza, 4



Joseba Agirre eta Imanolek espero dute datorren denboraldia surtengoa baino hobea izatea. Bernd Kraussen etorrerak behintzat animatu egin ditu.

Imanol eta Agirrarentzat denboraldia kaskarra izan da

Denboraldia kaskarra izan da Realean jokatzeko duten bi oriotarrentzat. Alde bategik, Imanolek apenas jokatu du, nahiz eta egin duenean oso malla ona erakutsi. Joseba Agirrerri, berriz, sudurreko lesioak denboraldia zapuztu dio. Hala ere, biak badute itxaropenik datorren denboraldia begira. Imanolen iritziz, *surtengoa baino txarra-*

gora behintzat ez da izango.

Bernd Kraussen etorrerak animatu egin ditu bi oriotarrak, jokatzeko aukera gehiago izan baitezakete. Joseba Agirre Irurelarekin debutatu duten bi gazteetako bat izan da, nahiz eta ez duen jarraipenik izan. Oraingoz Joseba Agirrek ez daki denboraldia zein talderekin hasiko duen.

Kamelek Gipuzkoako 10.000 metroko errekorra hautsi du

Kamel Ziani oriotarrek Gipuzkoako 10.000 metroko errekorra hautsi zuen ekainaren 15ean. Puntevedran jokatu zen distantziako Espainiako Txapelketan. Kamelek egindako denbora 28'46"koa izan zen. Horrela, lehen Diego Garcia azkottiarrek zuen errekorra bi segundutan hobetu zuen Kamelek.

Bestalde, ekainaren 22an Kamelek Orioko Kirol Antolakuntzarako Komiteak antolatutako lasterketa irabazi zuen erraztasun osoz. Proba entrenamendu bat baino ez zen izan berarentzat.

DORRONSORO
JANARIDENDA
 Abeslari 3 ☎ 83 09 37

G O I Z E K O

- KAFETEGIA
- IZOZKIAK
- CROISSANDEGIA

Aita Leroxundi, 33
 Telefonoa: 83 28 55

pasteleriako enbarguak hartzen ditugu

KELER
GURE HERRIKO GARAGARDOA

Iñaki Garate
Aseguru-agentea

C C I
CARASA, CILVETI, LACORT Y CIA, S.A.

Aseguruak

Eusko Gudari, 14 (atek.)-3. Telefonoa: 13 46 07

HERRI IKASTOLA

ABESLARI KALEA, 8
 TEL. 83 47 04
 FAX: 13 09 38

“Lagunak izan dira futbolarik eman didan gauzarik onena”

Futbolean jokatzen hamabost urtetik gora pasa dituen arren, KARKARAK bere bizitzako lehen elkarrizketa egin zion Jaime Coladori. Hala ere, egoera hori onartua duela dio, ez diola amorrurik ematen, amorrarazten duena jendeak beraien lana eta ahaleginak ez errekorozitzea dela. Urte askotako jardunaren ostean, Jaimek botak zintzilikatu ditu.

Talde txikiak jokalariek ez zarete telebistan edo egunkarietan ateratzen.

Bai, egia esan, ondo pasatzeko jarduten baikara futbolean. Amorratzen nauena da lanean, sufriz eta sakrifikatzen ibili eta jendeak hori ez aprezia-tzea. Orion lan pila bat egin da bi urtetan Bigarren Regionaletik Preferentera igotzeko, baina ez dakit jendeak ezkutuko lana ikusten eta neuritzen duen.

Lan guzti horrek ba al du saririk?

Ordaina denboraldi onak izaten dira. Igo ginenean urte osoko lana ikusi genuen denok; jentzi garenean, berriz, zailago da jendeak urte osoko lana aprezia-tzea.

Orion ez duzue dirurik kobratzen partiduak irabazte-gatik. Ordaindu, berriz, ordaintzen duzue txartelengatik.

Orion jokatzen duenak badaki hori. Preferentera igo gine-nean direktibak eman egin zigun azken partidu-an sarrerekin ateratako diruaren zati bat. Detalde polita izan zen.

Futbol profesionala erotu egin al da?

Sekulako aldaketak izan dira urte gutxitan, baina hainbeste diru mugitzen bada, jokalariek grina eta dirua sor-tzen dutelako da.

Talde txikiak, berriz, beti diru eske, ezta?

Talde handiek txikiak dirulaguntza gehiago eman behar diete. Tal-



de txikiak lan handia egiten dute kirolaren eta gazteriarren alde eta dirutza guzti horren zati bat harrobian inbertitu behar da.

Zer izan da futbolarik eman dizun gauzarik onena?

Jende pila bat eza-gutzea. Lagun asko egin ditut futbolean, baita kontrako taldeetan ere. Igoerretako ilusioa ere oso pozgarria da.

Eta okerrera?

Lesioak. Nik ez dut lesio askorik eta larri-

rik jasan, baina ezagu-tu ditut lesio larriak izan dituztenak.

Oriok ba al du Preferenterako moduko talderik?

Bai. Aurten jende askok huts egin du eta orain taldea ahuldu egin da. Prerentean mantentzeko beharrezkoa da 17-18 jokalarik elkarrekin zenbait urtetan jokatzea. Jokalarien maila ona da eta gazteek ere erakutsi dute beren neurria, baina denboraldian zehar izandako lesio eta bes-

telako baldintzek maila galtzea ekarri dute. Aurten inork ez gaitu (trabatu) hiru gol baino gehiagoko aldearekin.

Orion Regionaletik taldearen premia nabaritu zen. Lehen jokalariek askok futbola uzten zuten jubentzetan jokatzeke adina ginditzaen, herrian ez baitzegoen beste talderik. Futbolean jarraitu nahi izanez gero, beste herriren batera joan behar zen. Orain, berriz, herrian bertan daukagu taldea.

Orioko futbolariek oso fama txarra dute. Hainbestera al da?

Orion zenbait partidutan istiluak sortzen dira, baina ez da ezer serioa izaten. Beñekok oihu egiten diote arbitroari, baina Orioko futbolariek fama txarra gehiegizkoa da.

Lehen Orion jubentzetakoa zen maila gore-neko taldea eta jendeak asko animatzen zituen jubentziak, gorago ez baitzegoen beste talderik. Beste zelai batzuetan, ordea, ez zen horrelakorik ikusten. Dena den, kostaldeko futbolariek barrualdekoak baino hotzagoak dira.

Kaixo edaritegia

Ogitartekoak eta pintxo bereziak

Tfnoa: 13 07 73

ZUMINTZA

- *Heapaindegia* - *Depilazioa*
- *Estetika* - *Sauna*

Tfnoa: 83 17 56

Udara

Iritsi zaigu. Alemaniar, frantziar eta holandar jubilatuaik autokarabanetan azaltzen direnean hasten da ofizialki uda. Karrakelen modura, etxea bizkarrean dutela, hondartza hondartza, gure kostaldera iristen dira urteroko migrazioan. Gureak, aldiz, Sakoura doaz autobusetan ikapilan edo, Alkohol Viajesen eskutik, Bordatxotik Gure Txokora eta Gure Txokotik Txokolatenera txikiteoan. Ohitura eta patrika kontua.

Beranduxego datoz gazteen prozesioak, azterkelen penitentziaren ondoren, inguruetak herrietako santuen aldeko ospakizunetara. Gure neuronen erraustak banatzen ditugu elizbarrutetan. Lan gogorra, baina egin beharrekoa. Gazteok egingo ez bagenu, zer? Sanpedrotan izaten da ibilaldi horren gailurra. Baina Sanpedroak iritsi bezain pronto aldegiten dute, eta arrantzaleen emazteak opporak hasten dira.

Uztaila domingero nafar imperialista jahaizu zale orain udazkeneko gertatzen den perretxiko saltsa), barkillo saltzaille, beroa, zerbeza, ume pelma, izozki eta neska bikinidunen garaia izaten da. Tourra ere azalduko da gure telebistetan



JOKIN SALSAMENDI
Ikaslea

eta Indurainzaleak azkar bihurtuko dira Olanozale (txaketa salgai). Irratietan udako abestia jaioko da eta trikitijole tximaluze pelma batek bizitza izorratuko digu, muxuak eman eta muxuak eman (aurten ere, ligatzen lanak). Kanpinak, urtero bezala, gainex egingo du eta europar gazteak cullak bezala ugarituko dira Zarauzko gaueetan.

Gaua luzatzearekin abuztua iristen da eta Itallako gazte gomnadunak etortzen dira neska usainera. Indarrean hasten

dute hilabetea, ordagoka, baina solitario-ka amaitzen. Ai Urrutiko intxaurrak hama-lau, gerturatu eta lau! Oriotarrak han joango dira oporretara Mediterraneora eta Oriok Mexiko edo Andiafuziako herri baten itxura hartuko du. Relax!

Domostiako eskaparateko festak amaitzean konturatuko gara iralleko azterketak hor ditugula, eta gure apunteak hautsa kendu eta kalkulagailuei pilak jarri orduko, berriz ikastera. Kafea, apurteak, bi fotokopia hauek ze gaitakoak dira, ama ez naiz konzentratzen... Betikoa.

Baina Kontxako estropadak jokatzearekin amaituko da ofizialki udara. Gero, kutzareek hondartzako etxe eta tabernak botako dituzte, haurrak eskolara joango dira, gazteak INEMera, Karkara azalduko da eta enpresetako bulegoetan negar hotsak berrentzungo dira. Ohizkoa!

Beranduago, neguan, polten horiak bazterrak oriatzen dituenean, gogoratuko gara laurogeitamazazpiko Kontxa ere Oriok irabazi zuela eta mekaguenka hasiko gara udara zein azkar joan zaigun gogoratzen.

Hil ba, garatz hago oraindik eta eutsi denborari.

Pelukeria eta estetika mistoa



- ✓ Tinte begetalak eta koloratze naturalak
- ✓ Betileetarako tinte iraunkorra
- ✓ Azkazal eskulptituak
- ✓ Pedikura
- ✓ Depilazioa: argizari berearekin nahiz hotzarekin zirkulazio arazoak dituztenentzat eta baita depilazio elektrikoa ere.

San Nikolas, 2 Tlf. 85 31 70

Festa zoriontsuak opa dizkizuegu!

Egin ezazu zure publizitatea

KarKara

aldizkarian

☎ 83 15 27



Pelukeria
Solariuma
Estetika

T. 85 27 29

Gazte eta jubilatuentzako
prezio bereziak



Kamel Ziani
airoso iritsi zen
helmugara
aiarren txaloe
artean.

Zianik irabazi zuen Zarautz-Aia 4. krosa

■ Emakumetan Iratxe Aranburu izan zen txapelduna

Ekainaren 8an izan zen krolean 55 korrikalarik parte hartu zuten, 11 kilometro eta 300m.ko ibilbidean. Eguraldia oso beroa izan bazen ere, azkenean, 51 iritsi ziren helmugara.

Esan bezala, Kamel Ziani oriotarra izan zen lehena —37'56"—, bigarrena Juan Mari Garin —38'26"— eta, hirugarrena, Santi Gonzalez —39'28"—.

Emakumeen artean, Iratxe Aranburu iritsi zen lehena —48'52"—, bigarren Pilar Barriola —55'18"— eta, hirugarren, M. Eugenia Gonzalez —56'50"—. Aipatzekoa da, bidean geratu zirenen artean, Uxo Sorazu zegoela, hain zuzen ere, iaz emakumeen errekorra jarri zuena —48'06"—: Aurten gainditu ez denez berak

du denborarik hobereana. Animo eta ea hurrengoan zorte hobea duzun.

SARIAK

Krossa herrikoia izan arren sariak ez ziren makalak izan. Lehenengoak 20.000 pezeta jaso zituen, 15.000 bigarrenak, eta, hirugarrenak, 10.000 pezeta.

Gainera, 50.000 pezetako sari berezia zegoen marka jartzen zuten bi mailetako lehen korrikalarientzat.

HERRITARRAK

Hainbeste korrikalariren artean bazen aiarrik ere, eta egia esan ez ziren makal ibili: Jose Mari Aldalur —44'54"— eta Laurentzi Iturain —49'20"—.

Aiako San Pedroak

Aristerrazuko San Pedro festetako programa:

Ekainak 28: Mus txapelketa arratsaldean. 22:00tan sutziriak eta, ondoren, Kristina eta Amaia trikitilariak.

Ekainak 29: Goizeko 11tan Meza, eta ondoren hamaiketako zaharrentzat.

12:30tan, Herri Kirolak auzoko gazteen artean. Arratsaldeko 6:30tan toka txapelketa. 21:30tan *Etxakit*.

Ekainak 30: (Umeeen eguna). Goizeko 10tan Meza.

Ondoren pailazoak eta haur jolasak. 17:00tan *Spice Girls*en kontzertua eta gero txokolatada. 22:30tan *Etxabe* anaiak.

Uztailak 4: Gaueko 11tan *Musutruk* taldea.

Uztailak 5: 12:00tan Meza. Ondoren, Mutil-ardoko bazkaria eta Oilasko biltzea. Gauen *Triki-take* taldea.

Uztailak 6: Goizeko 10tan Meza. Eguerdian trontza txapelketa eta trikitixa. Arratsaldeko 6tan txinga txapelketa. 22:30tan *Etxakit* taldea. Eta, goizeko 1ean, jaietako bukaera emateko, traka zaratatsua.

13. ibilaldia Arantzazura oinez

Olateta elkarteak uztailaren 5erako antolatu du Arantzazura ibilaldia. Irteera goizeko 5etan da. Ibilaldia 15 ordukoa da gutxi gora behera. Interesatuak Iturrioren jaietxean eman izena uztailaren 2a baino lehen, eta 1.000 pezeta aurreratu.

Autoak aukera
onean
AIA ORIO

Telefonoa: 13 04 38

ITURAIN
estankoa

Aritzaga Plaza ☎ 13 44 73

LIZASO
ALTZARIAK

Eusko Gudari.46 ☎ 83 07 84

Erromeria

ARISTERRAZUN

Aiako San Pedro bailaran, maiatzaren lehenean, trikiti jaialdi aparta egin zen; trikitalari plaza inauguratu zela hamar urte betetzen zirenean. Egun hartan, herritarrek eta Euskal Herri osotik etorritako lagun ugarik giro ezin hobea jarri zuten jaialdiak iraun zuen denboran: taulatu gainean aritu zirenentzat eta dantzari aritu zirenentzat, denentzat, izan zen lagungarri Aristerrazun bildutako jendetza handia. Hirurogei urte bete dituen Aristerrazuko erromeriak ospakizun bikaina izan zuen.

Joxe Alkain
Andatza Erromeri
Elkarteko kidea

Maiatzaren 1eko jaialdiaren historia orain bi urte hasi zen gutxi gorabehera. Orduan hasi ginen ideia mamitzen. Juan Mari, Aristerrazuko semeak, agertu zigun ideia edo asmoa eta elkarteko partaideok onartu egin genuen, Martxel Ansa tarteko gurea. Orduan, buruz gain izan dugu lana guztia prestatzeko. Aristerrazun trikitalari duen historiari buruzko xehetasunak ematen hastera ez noa, ondo adierazita baitago salgai dauden konpakto eta kasetetan. Grabazio hau egiteko, lehen lehenik, norik parte hartuko zuen erabaki behar izan genuen. Auzo hau trikitalari bikote askorentzat izan baita jendaurreko lehendabiziko plaza.

Bikote askorekin hitz egin dugu, baina denentzat lekunik ez zegoen, grabazioak denbora mugatua baitu. Azkenean, eta hau dena kontuan hartuta, hamabi bikoteren aukera egin zen.

Malatzaren lehenean trikiti-jaialdi aparta egin zen. Egun berezia izan zen, inondik ere, alarrentzat. Egun horretan urteurren bat ere ospatu zen, trikitalari plaza inauguratu zela hamar urte bete baltziren.

Aukeraketa zabala izan dela uste dugu, jende askori gustoa egiteko modukoa: Laja-Landakanda, Xabale anaiak, Agurtzane Elustondo-Andoni Lamiñaga, Markos Landa bere semeekin, Gozategi anai-arrebak, Etzakit, Rekalde anaiak, Maixa-Ixiar, Muxutruk, Amaia-Kristina, Joseba Iparragirre eta Ander San Jose, eta Koldo-Arantxa Iparragirre. Lan hau kalgan dago eta asmoetako bat, neguan egiten den erromeriari eusteko dirua lortzea da, eta aldi berean gaur egun irauten duen trikiti erromeria bakarrenetako bati bultzada ematea: Aristerrazuko erromeria indartzea. Diskoa egin eta gero,

jendaurreko jaialdia antolatu eta koordinatu genuen. Hemen gauza bakar batek sortzen zigun kezka: nolako eguraldia egingo ote du? Eguna iritsi zen, eta eguraldiak gurekin batera etortzea pentsatu zuen, gainetik pisu ederra kendu ere bai, egun osoan zehar horrelako zero urdina ikustearekin. Egun hari esker Aiako herria eta Aristerrazuko erromeria askoz ezagunago dira Euskal Herrian, Irrati Telebista dela medio. Enpresa honi ere ideia gustatu eta programa bat zabaldtu egin zuelako. Ez da ahaztu behar Aristerrazuarrek egun hartan egingutako ahalegin berezia. Gazteek, alde batetik, lan asko eta ona egin zuten





San Pedro 97
festa programa

San Pedro 97

Ekainak 24, asteartea San Joan eguna

22:00 Dantzaldia Eusko gudari kalean, Kutxaren parean: Isidro eta Sergio trikitilariak. Antolatzaileak: Kolon Txiki, Il Oelato, Bordatxo, Xixario, Itsas Ondo, Antilla, Arkaitz, Gabon, Loretxu, Itzala, Sarasua eta San Juan Bide

Ekainak 27, ostirala

18:00 Eskubaloia frontoian: Oriko Ikastolako taldea Usurbilgoaren kontra

19:00 Buruhandiak eta txistulariak

19:00 Judo eta balleteko erakustaldia frontoian, Indar Gym gimnasioak antolatuta

19:30 Trikitilariak kalejiran

20:30 Salatxo abesbatzaren kontzertua elizan

23:00 Ikurriña altxatzea, danborradarekin

00:30 Musika plazan: *Iratxo* taldea

Ekainak 28, larunbata San Pedro bezpera

08:30 Surf txapelketa hondartzan, egun osoan

10:00 Txistulariak kalejiran

10:30 Trialsin-eko txapelketa hondartzako arroketan

11:00 Plater tireketa Antillako zelaian, egun osoan

11:00 Trikitilariak kalejiran

11:30 Sardin jana kalez kale

12:30 Jota emanaldia plazan: *Voces Navarras*

14:30 Herri bazkaria Dikeko parkean. Antolatzaileek janiko dituzte sagardoa, mahaiak eta aulkia; jatena, berriz, nor berea eraman behar du

BORDATXO TABERNA



**BOKADILLO, SANDWICH ETA
HANBURGESAK**

Jan ditzakezu eguneko ordu
guztietan

Ondo pasa eta on egin!

San Pedro 97

16:00 Futbito finalerdiak eta finala frontoian

18:00 Helduen dantza askatuko 1. txapelketa plazan

23:00 Musika plazan: *Laiotz* taldea

24:00 Bideo emanaldiak moilako txosnetan,
04:00ak arte.

05:00 Txokolate jana plazan eta bideo-karaokoa

Ekainak 29, igandea San Pedro eguna

08:30 Surf txapelketa hondartzan, egun osoan

10:00 Txistulariak kalejiran

11:00 Meza nagusia elizan udal korporazioarekin eta txistularien laguntzaz. Salatxo abesbatzak kantatuko du Ch. Gounod-en *Messe brève*, lau ahotsetara eta H. Eslabaren *Tu es Petrus*

10:30 Zinta karrera plazan

11:00 Trikitilariak kalejiran

12:00 Jubilatuentzako hamaiketakoa Zaharren Babes Lekuan

12:30 Buñuelgo musika bandaren emanaldia plazan
Los celos y el viento C. Larrea
Airriños Aires, Galiziako rapsodia G. Freire
Egun bat Vienan F. Von Suppe
Folk Dances D. Shostakovitx
Infernutako Orfeo J. Offenbach

16:00 Goitibeherak San Martinetik Pelotari kaleraino

17:00 *Tutik* pailazoaren emanaldia plazan

18:00 *Aldazgora* fanfarrearen kalejira

19:00 Herri-kirolak plazan: aizkolariak eta harrijasotzaileak: Arrospide, Olasagasti, Elorriaga eta Aierbe aizkolariak eta Perurena harrijasotzailea



Ruttun
Babean katal, 80atf83 88

**IRADI
AHOLKULARITZA**



Alta Leioan, 23 Telefax 13 46 90

IL GELATO



**Gau eta egun
ZABALIK**

- ✓ Etxeko helatuak
- ✓ Gosariak
- ✓ Laranja zumoak
- ✓ Batido naturalak
- ✓ Izozi-kopak

Edozein garaitan
bokadillo beroak

Festak ondo pasat!

San Pedro 97

23:00 Su artifizialak Xuai ingurutik: *Zamorano Caballer*

23:30 Musika plazan: *Trabuko* taldea

Ekainak 30, astelehena San Pedro bigarrena

10:00 Txistulariak kalejiran

11:00 *Gorriti eta bere animaliak* Ikastola aurreko zabalunean

11:00 Trikitilariak kalejiran

12:00 DILISTAKLANDIA. Koltxonetak frontoian 13:00ak arte

12:30 Bertsolariak plazan: Esoain, Gumutxaga, Lasarte eta Sukia

14:00 Jubilatuen bazkaria Altxerri jatetxean

12:00 DILISTAKLANDIA. Haurrentzako parkea frontoian: haizezko gazteluak, jokoak, musika... Oharra: haurrak joan daitezela arropa erosoan jantzita

20:00 Musika plazan: Imanol Urkizu. Bi saio eskainiko ditu: afalaurretik eta afalondoan

*Festetan eskulanen erakusketa egingo da Ostari taldeak.
Erakusketa kultur etxeko aretoan izango da honako egun eta orduetan:
ekainak 28, 29 eta 30, goizez 11:30etatik 13:30etara eta, arratsaldean,
18:00etatik 20:00etara. Bertan erakutsiko dira, baita ere, jubilatuen eskulanak.*



Caja Laboral
Euskadiko Kutxa.
Más cercana.
Más profesional.

Eguraldia
benetan
zoragarria
izan zen eta,
ez zen
makala izan
Aristerrazun
bildutako
jendearen
giroa eta
umorea.




egun hartan.
Eskolako gaztetxo eta
irakasleek, bestetik, prestatu
eta dotoretu zuten "dekoratua";
beren lana izan zen,
eskenatokiak kolore biziak
edukitzea, eta bai ondo egin
ere!
Aiako Udalak ere jarri zuen
bere parte, horregatik
denek eskerrak eman behar
rean nago elkartearen
izenean.

Baina dena ez zen hain ondo
joan. Guk espero baino
askoz jende gehiago etorri
zen trikitalari jasaldira, eta
horren ondorioz, aparkatze-
ko leku falta zela eta kobxee-

kin arazo bat baino gehiago
sortu zen; eta, bestalde,
komun bat edo bi jarri izan
bagenitu, ez zen gaizki
etorriko.
Gertatutakoak gertatuta,

gure barkamena eskatu nahi
genuke eta, aldi berean,
eskarmentua jaso dugula
adierazi, beste baterako
bada ere.
Nolanahi ere, denon indar-
rak bat eginda, uste dut
jasaldi ikusgarria egin
genuela, eta han izan ginen
guztiok egun horretako
oroitzapen polita gordeko
dugula.
Mila esker guztiok!

GUK ESPERO BAINO ASKOZ JENDE
GEHIAGO ETORRI ZEN, ETA HORREN
ONDORIOZ, ARAZO TXIKI BATZUK
IZAN GENTUEN



**EZKONTZA, JAUNARTZE
EDO BATAIOETARAKO
LEKU APROPOSA**

*Bertako sagardoa eta
etxeke postre bereziak*

ALUSTIZA AUTOBUSAK

Autobus litera eta 16, 36 eta 56 plazakoak
Bidaiatu eta ezkontzetara edo sagardotegira joateko

13 28 93 / 83 08 80 Mugikorra: 909 40 12 34 / 909 43 32 24

ARISTERRAZU Jatetxea

Jaiak ondo pasa!

San Pedro ☎ 83 45 21

KANUA

Festak ospatzeko
kategoriko lekua

☎ 83 43 22

Denbora libre

Ongi etorri aita-ama eta umeok uztailera denbora pasu edo denbora libreko goizetara.

Urtero bezalaxe, heldu dira zorioneko oporrak. Bazen garaia, ezta? Zenbat etxekolan, goiz jaiki behar eta ordurako iritsi ezin eskola garaian? Ingleseko partikularreara noala, gero ordenagailuarekin, musika eskola dela, judotik irten eta gero, deskuidatzen bazara gainera, futbol partidua jokatu beharra igual. Eta bidean, auskalo non, bokadilua galdu! Ez da harritzekoa. Azkenean ondo merezitako oporrak! Ondo pasatzea tokatzen zaizue; oraingoan zuek zarete protagonista.

Tira, eskolatik zer edo zer zintzilik geratu bada udarako, esango du aitak edo amak: Benga, debere horiek. Kasu egin ba, e, bigarren aldiz esan beharrik gabe eta 'jooooe' erantzun gabe. Bizkor eseri eta bukatu egin beharrekoak, gurekin nahi zaituztegu eta lehenbailehen, *ondo pasatzeko!* Gauza atsegin asko egitea pentsatu dugu, zuek eta guk elkarrekin eta hasteko irrikitan gaude gustoko dituzuen jakiteko.

Izan ere, seko aldrebesak gara askotan, momentuan zer ez dudan esku artean, huraxe nahi. Zer da ba komeria, ezta?

Denbora pasu horrekin alpererarena egitera goazela pentsatzerik ez genuke nahi, gurasook, lanean madarikatzen jarduteko asmorik ez badugu ere, ezta umeok? Hartuko diogu bai neurria.

Lagunartean ondo pasatzeko egiten diren jolas eta ekintzekin hilabete hau betetzeko asmoa dugu. Hori da behintzat gure intentzioa, animatu zaretenekin. Beti zerbait ikasiz, beti ikasten baita zerbait.

Ea denon artean hilabete zoragarri bat pasatzeko modua egiten dugun.

Arretako monitoreak



Usurbilgo txapelketan parte hartu zuten artean, argazkian Ibai Martinez falta da, guztietan garteena..

Judoko klubaren arteko txapelketan aiarrak

Ekainaren 15ean izan zen Usurbilen 2. mailako ikasleen arteko txapelketa eta Usurbil, Getaria, Zarautz, Orío, Irun eta Aiako judoek parte hartu zuten. Bere mailan Imanol Sarasola txapelketa izan zen eta. Eñaut Guruzteaga, berriz, hirugarren sailkatu zen. Hauek dira ezkerretik eskuinera eta goitik behera hasita parte hartu zutenak: Siratz Aldanondo, Gorka Zuloaga —besoa igeltzatu zuen eta ez zen txapelketa izan, bezperan izan baitzuen istripua— Mikel Azpiroz, Unai Arruti, Txaber Azkarate, Aitor Azkue, Josu Balerdi, Imanol Sarasola eta Eñaut Guruzteaga. Hurrengo saioa herriko festetan izango dute. Animo mutilak!

BERRI LABURRAK

EURITEAK KALTEAK ERAGIN ZITUEN

Ekainaren 1eko euriek kalte ugari eragin zituzten bazterretan. Udalak kaltetuen zerranda zehatza osatzeaz gain, balorazioa ere egin du eta guztira 50.625.000 pezetaiko kalteak izan dira.

POSTA ZERBITZUA

Herritarrentzat mesedegarria den zerbitzu berria jarri du martxan Udalak: ziurtagiri eta posta bereziak

udaletxean jasotzeko aukera izango dugu, astelehenetik ostirala bitartean, eguerdiko 12etatik 13etara bitartean.

AEK-KO IKASLEAK AIAN

Azken urteetan bezala AEKK barmetegia antolatu du Aian, baina aurtengoan berrikuntza berezia dakarte, familia osoak etorriko baitira. Lehen txandan 15 heldu, 20 haur, 3 irakasle eta 2 begirale izango ditugu gure artean.

ALTXERRI
Jatetxea
Telefona: 83 07 62

Benta Berri
Betiho maldaritzan
nagus berriekin
Aitzpea, 14 Tfnoa: 83 42 75

SEGA
ezkontzak, bataioak,
jaunartzeak
Tfnoa: 83 07 16 Erreka auzoa



Orietik Argentinara joandako familia bat. Goian eskubitik ezkerre: Pilartxo Maritxalar, honen ahizpa Korito eta alaba Ana Mari eta senarra. Behean ertxian: Pilarren aita-amak —Barramonu eta Olatxo baserrikoak— eta eskubian: osaba Praxku Azpiroz, Argentinara joandako lehena. Argaskia eta zehetasun hauek Rosa eta Gregori Azpirozok emanak dira. Honen berri gehiago 18. orrian duzue.

AMERIKETARA JOAN NINTZAN

*Xentimorik gabe, handik etorri nintzan,
maitia, bost miloiren jabe...*

IÑAKI ITURAIN

Halaxe dlo euskal kantu ezagun batek. Asko izan dira euskaldunen Ameriketarako abentura kontatu duten kantu eta bertsoak.

Azken berrogei urteetan kanpotar asko etorri da gure artera, lan bila. Baina mendetan gure herria emigrantea izan da. Asko izan dira gure herritik, bai handitik —Euskal

Herria—, bai txikitik —Orto—, kanpora joan direnak, bizimodu berri baten bila, emigrante; tartean oriotar asko ere bai. Gehienak Ameriketara.

Emigrazio horrek kultura bat sortu zuen bere inguruan: horren emaitza da, besteak beste, erreportaje honi izenburu eman dion kantua ere.

Gaur egun ere badira oriotarrak Ameriketara bizitzen. Jose Ramon Esnal —Basarri— Mexikoko Tijuana bizi da emazte Flor eta alaba Olatzekin, urte askotan batetik bestera ibili ondoren. Bere anaia Juan Carlosek ere urte erdia Venezuelan eta Panama inguruan ematen du, arrantzan. Hauen koinatua den

Iñaki Azkue ere hantabil arrantza negoziotari. Arraunlari izandako Iñaki Etxeberria Costa Rican bizi da.

Han ibili zireni, baita ere, Jose Migel Lasazena, orain Malagan bizi den Jose Atorrasagasti —Zentralekoa— eta Luis Sarasua gaztea, hauzesta-puntari jokatzen, Floridan.

Ameriketara joan-

dako lehenengo oriotarrak arrantzaleak ziren, eta bakailua eta balearen atzetik iritsi ziren haraino, aspaldi. Horren berri Selma Huxley izeneko andre ingelesaren bidez izan dugu. Emakume ikertzaile honek bogei urte eman ditu Oriatin. Terranobara joaten ziren euskal arrantzaleei buruzko dokumentuak



Jose Mari Azkue, Jose Mari Lizaso — ordungo alaktea — eta Iñaki Lasa Terranoban 1985ean sintzimako Orioko arrantzaleen arrastoen atzetik egindako bidaiari, Selma Huxley ikerlariarekin batera, arrantzale haletako baten hilobien aurrean.

aztertzen.

Ikerketa horien ondorioz jakin dugu euskaldunen arrantzak garrantzi handia izan zuela, XVI. eta XVII. mendeetan, batez ere; eta arrantzale horien artean oriotar dexente izan zirela.

BALEA ARRANTZAN

Lehenengo berria 1584koa da, urte hartako Gabon gauean Port Bretonen hil zen Etxanizeko Joanes arrantzale oriotarrak egin zuen testamentua dugu. Hau dugu, hain zuzen, ikerlariak topatu duten Kanadako agiririk zaharrena. Agiriak dioenez Etxanizekin batera beste bi oriotar zeuden eta Zarauzko mediku bat gau hartan. Testamentuan eskatzen zuen bere gorpua Oriora ekarri eta San Nikolas elizan lurperatzeko; gero mezetarako dirua agindu eta emazte Arbeko Dominika eta alaba uzten ditu oinordeko.

Euskaldunek ez zituzten lur haiek kolonizatu. Arrantza egin

eta baleen olio-haraglak, bakailuak eta fokoen larruak bodegan sartuta urtero itzultzen ziren jaioterrira, negua hasita izotzak bidea itsi aurretik.

Ez ziren bertako indiarrekin ezkontzen edo bizitzen jartzen, eta arrantzale gehienak untzian bertan bizitzen ziren, erosoago zitzaien lehorreko txabolak baino. Hala ere euskal izendegia ugari samarra da Terranobako kostaldean. Haietarik gabeko babesean dagoen badia bat *Oporportu* deitzen da, atsedenekua zelako; gaur egungo *Port du Choe* garai batean *Portuxoa* zen, eta beste portu bat *Ainguratzar* da.

PAKEZALEAK ETA LANGILEAK

Selmak dioenez euskal arrantzaleak pakezale eta langileak ziren,

baina itsasuntziak arnatz Josita eransaten zituzten frantziar, holandar eta ingeles piratengandik babesteko. Terranobako penintsula txiki batean gertatutakoa kontatzen du, irrifarrez: "Penintsularen alde batean oriotarrak arri ziren arrantzan, eta beste aldean euskal frantsesak. Oriotarren patroia Pedro Etxanize zen. Gauetz, oriotarrak lo zeudela, pirata ingelesak joan eta untziaz jabetu ziren. Arrantzaleetako bat, ordea, mozkortu egin zelako edo lehorrean zegoen lotan eta esnatu egin zen ingelesen bulekin. Orduan korrika egin zuen penintsularen beste alde-raino, euskal-frantsesek abisu ematera, eta gotzaldean berriro untzia berreskuratu zuten. Seguru egon oriotarrak lo egon izan ez balira

piratek ez zutela barkua harrapatuko. Oso gogorrak ziren euskaldunak gerra kontutan".

Selma Huxley Orion ere izana da, ibilera halen berri ematen, hitzaldien bidez. Orduan hainbat oriotarrekin sortutako harremanaren ondorio da orduan alkate zegoen Jose Mari Lizaso, Iñaki Lasa eta Jose Mari Azkue oriotarrek eta Iñaki Linazasoro tolosarrak 1985ean Selmarekin Terranobara egindako bidaiari.

Terranobako arrantzak indarririk handiena XVI. eta XVII. mendeetan izan zuen; baina beti izan dira arrantzale oriotarrak han. Inazio Zaldua, Jose Manuel Murgiondo, Antonio Urretabizkaita eta Lakunza anak —horregatik deitzen diete Terra— han ibili dira orain urte gutxi arte.

LAU BAPORE VENEZUELARA

Orioko arrantzaleak Kantauriko kanpaina bukatuta Azoreetara joan ohi dira, urte batzuetan, arrantzan segitzera. Inoiz Afrikaraino ere joan dira, Dakarrera; baina Ameriketara behin alegatu dira, 1978an. Lau bapore joan ziren: Cantabrico, Mediterraneo, Villa Real eta San Nikolas, 55 gizonekin, eta Hondarribi, Ondarru eta Leketzoko beste 9. Mafatzaren bukaeran abiatu ziren Oriotik eta urriaren bukaeran itzuli berriro herrira. Bitarte horretan arrain asko eta asko harrapatu zuten, atun mota berezi bat, baina oso prezio baxua egiten zieten eta hango arrantza ez zen oparoa izan. Haruntzakoan 18 egun behar izan zituzten Canarietatik. Leku-tan gelditzen dira Colonek behar izan zituen hiru hilabeteak.

Patroi lanean Ramon eta Enrique Uranga eta Jose Mari eta Gerardo Azkue joan ziren bapore haletan.

Geroztik ere arrantzale gazte mordoska da Ameriketara arrantza-ra joandakoa, Javier Manterola, Bixente Uxkun, Saez anak, Patxi Exkerra...

ARGENTINARA

Historian euskal emigrante gehien hartu duen lurraldea, alde handiz, Argentina izan da. Emigratze uholderik handiena XIX. mendean izan zen. Euskaldunek garrantzi handia izan dute Argentinako gizarlean eta historian. Bai historian, bai toponimian, euskal izen asko ageri dira. Hara joandako euskaldunen bi seme naztoko presidente izan ziren.

● Kanadan aurkitutako agiririk zaharrena Orioko arrantzale batek 1584an egindako testamentua da.

Iparragirre kantaria eta Otaño bertsolaria ere han izan ziren, baita herrininez kantu eta bertso eder askoak sortu ere. Oriotarrek ere asko joan ziren harantz.

Juan Azpiroz gure aitona zenaren anai bat, Ramon, 18 urte zituela Argentinara joan zen soldaduzkari ihesi, herriko beste bi mutil gazterekin —bat Anabitarte zen—. Garai hartan hortxe zen intsumisio modu bakarra. Bere aita zenak, Lontzok, bi bertso hauek jarri zitidion urrutik joandako semeari:

Alta Lorentzok jaritzen dizkizu / Orijotik kan bertsoak, / Ameriketara jakin ditzaizun / emengo kontu batzuek, / orlik-pentsatu zenbat nahi dijon / seme bati gurru-suak, / nai dezunian etorri zaite / zabalak datzkat besuak.

Amo zarra ere emen daukagu / andre ona ta dultzia, / bere semea ez luke naita / Ameriketara gaitzia, / otea etorri ta alako bati / bota zaiozu begia, / aitak zer poza artuko luke / ezaten dituz egia.

Baina gizon hura, beste hainbat bezala, ez zen izuli jaioterriara, aitonduta seme-erriarekin bisitan etorri zenean izan ezak. Bere bi bilobak Bahía Blancan bizi dira, portu hartan duten arrain-kontserberan lanean. Zaharrena, 34 urteko Fernando Azpiroz, maiztean Orion izan zen, aitona-ren jaioterrian, eztebidalan. Txikitan, euskal dantzak ikasi zituen, urtero ospatzen dituzten euskal jaietan dantzatzeko; beranduago beren hiriko Eus-

● Ameriketara joandako lehenengo oriotarrak arrantzaleak izan ziren

● Argentinara joandako oriotarretatik Sabeko Agustina Peña izango da han osperik handiena lortu zuenetakoa

kal Etxeko lehendakari izan zen. Euskal Etxe horretan gazte batzuk euskera ikasten ere arri dira, arbasoen herriaren sua bizirik mantentzeko.

AGUSTINA PEÑA

Argentinara joandako oriotarretatik Sabe baserrian Agustina Peña izango da, noski, han osperik handiena lortu zuena: 1976an 100 urte bete zituen, hort ospatzeko 100 lagunetik gora elkartu ziren. Buenos Aireseko euskal komunitatearen apaiza den Inaki Azpiazuak meza eman eta ondoren Laurak Bat euskal etxera bildu ziren. Hango egunkari bateko elkarrizketa bat gare eskuetara iritsi da, eta horrela jakin dugu Agustina 1900ean joan zela Oriotik Buenos Airesera. Aitaungo Jose Inazio Auzmendi senararekin, Euskalduna izeneko hotela zabalduta zuten Laman, Gero beste hainbat Buenos Aires, Mar de Plata eta Tandilen; eta tradizio

hotelero sendoa sortu. Zuzpi seme-alaba izan zituen Agustinak. Bera 13 senidetan gazteena zen. Hipolito Yrigoyen, Argentinako presidentearen adiskidea ere izan zen; odolkiak egiten omen zizkion. Ehungarren urtebetetzeko ospakizunetan esan zuenez Boca Juniors futbol taldearen jarratizaila zen eta, arican, bazekien euskeraz hitz egiten. Senarra askotan joaten omen zen Buenos Aireseko portura zibiazten euskaldunak hartzera eta laguntza ematera.

Orioko Antonio eta Rufino G. de Txabarriren aitona-ren arreba zen Agustina eta 102 urterekin hil zen, hauek esan digutenez. Agus-

tinaren bi iloba ere, Inazio eta Domingo Peña, Saikolako Errotakoak, Argentinara joan ziren eta bertan hil.

ITZAIZKO ALABA

Hara joandako beste emakume oriotar bat, Itzaizko Inazia Lertxundi izan zen, 1860an. Duela 20 bat urte hil zen, 104 urterekin, eta 12 seme-alaba izan zituen. Haren biloba argentinar bat, Jose Carlos Anzola Zabalegi, Orion izana da, aitona-ren jaiotxea eta familia-erakundearen ezagutzera. Lehen kontaktoa Oriorekin modu bitxiarekin egin zuen, karta bat bidali zuen kontakto eske, helbide honetara: Familia Peña Lertxundi,

Parage Orto, España, eta Itzaizera iritsi zen.

GOZATEGITARRAK ARGENTINAN

Ainhoa eta Asier Gozategi ere bi aldir izan dira Ameriketara. Argentinan bizi diren euskaldun eta euskaldunen ondorengoei beren musika alaiarekin gozarazteko. Hainbat hiriko euskal etxetan ibili ziren kantari, eta haitetako batean gazte argentinarrak kamiseta horiarekin jantzita agertu zitzaizkien. Oriotarren ondorengoak omen ziren.

OPORRETAN

Gaur egun normaletan joaten da Ameriketara, baita oporretan ere. Izan ere orain 10 ordu-ra baita ukagu. Orion bada Cuban lau aldir izandakorik ere.

Hara joandakoen artean tragediá latzik ere gertatu da: Benta baserriko 23 urteko Emilio San Sebastian eta emaztea ezkonberriean Santo Domingora joan eta bertan gelditu ziren betirako hegazkina lebertuta.

Itzaizen jaiotako Inazia Lertxundi, bere hamabi seme-alabetakoa zaspirekin, Argentinan.



'Negar egingo dut, esponsorra aurkitzen ez badugu'

Laugarren urtea du Arraun Elkarteko Presidente gisa eta oraingoz ez dakit zenbat denbora gehiago egongo den, lan honetarako denbora asko kentzen diotako, batez ere zazpi hilabeteko alaba hazten ikusteko. Zenbaitetan ez du alaba begiak zabalik dituela ikusten igandetik ostiralera.

ANA ITURAIN

Nolatan sartu zinen klubean?

Gu pixka bat engainatuta allegatu ginen. Guri laguntzeko delitu ziguten, eta behin talde bat osatu ginenan, lehen zeudenean dimittitu egin zuten, eta ustez laguntzera joan ginenok kluba hartu behar izan genuen. Inork ez zuen presidente izan nahi eta niri tokatu zitzaidan.

Luze jarduteko asmotan al zara?

Ez dakit, aurtien bukatzen dugu lana, laugarren urtea delako. Hauteskundeak egin behar ditugu eta ez dakit besteren bat aurkeztuko den. Nik, behintzat, ez dut ezer entzun. Neronek ere asko pentsatu beharra daukat jarraitu edo ez. Lana polita da, baina asko exigitzen du, disgusto asko izaten dira, nahiz eta pozak ere izaten diren.

Zer egin duzue lau urte hauetan, hau da, nola hartu zenuten kluba eta nola dago orain?

Nik beti eskertu izan dut aurreko direktibak nola utzi zuen kluba. Bai esponsorra eta baita materiala ere baldintzarik onenetan zeuden. Momentu hartan diru askorik ez



zegoen baina esponsorra bai. Nik kluba utzi behar dudan momentuan baldintza berdinetan uztea gustatuko litzaidake. Guk egin dugan gauza berria enbarkazioak osatzea izan da. Ofertan zeuden enbarkazioak ekarri ditugu, gehien bat umeek erabiltzeko. Traineru berriak ere sartu ditugu. Zortziko on bat ere ekarri genuen eta jendea ibilarazi dugu. Gazteekin, adibidez, Mirallesek lan handia egiten du. Dagoeneko hurrengo urterako mutilak begira ari da infanlletarako.

Obra handirik ez dugu egin. Gure helburua entrenamenduetarako erabiltzen den fosa estaltzea izango litzateke.

Zertan da orain esponsorrena?

Gaizki. Atzo bertan jaso nuen ezezko bat, seguru-segaru batezkoa izango zela espero nuena, eta lehenago asteazkenean beste bat. Zaila

dago esponsorra lortzea.

Zer gertatuko da lortzen ez bada?

Nik behintzat negar egingo nuke. Zaila izango da urtea osatzen, baina espero dut urtea salbatzea.

Enpresa batzuk prest dande dirulaguntza emateko, nahiz eta esponsor izan ez, horrek diru asko eskatzen du eta. Hartara, enpresa horiek dirua jarriko lukete, nahiz eta gero beren izena traineruan agertu ez.

Baina babeslerik gabe estropada guztietara joateko dirua izango al da?

Arazoak izango ditugu Sevillan izango diren mobileko Espainiako txapelketara joateko infanlletari eta kadeteekin. Eta estatuko trainererik txapelketara joateari, adibidez, uko egin diogu ez bakarrik diru arazogatik, baina arrazoi bat, behintzat, hori izan da.

Zein izan dira besteak?

Lotsagarria da Euskal Herrian egin behar zen txapelketa alde egiten uztea.

Zergatik ez da hemen egin nahi izan?

Arazo asko dira eta askotan ez duzu egia jakiten, baina bileretan gauza arraroak ikusi ditut. Klub batzuek ez dute parte hartzeko aukerarik, beraz interes handiegirik ere ez. Gero, Espainia eta Euskal Herriko Federazioen arteko ezinikusiak direla eta, ez da txapelketa hemen egiteko gogo handirik izaten.

Arrazoa orduan zein da, federazioen arteko ezinikusiak eta konponezinak?

Bai, federazioek istilu handiak dituzte haien artean eta azkenean klubek ordaintzen dute. Orain dela urte askotako arazoak dira eta tristea da arraun munduan jende berriarik ez agertzea, beti jende bera ibiltzea eta bere arteko konponezinak ez bukatzea. Euskal Herriko Federazioak, adibidez, arraun munduari laguntzeko baina lan handiago egiten du. Espainiakoak bere lekutik kentzeko.

Nola aurriztuz duzu denboraldia?

Gure lana betez gero, aurreko muturrean ibiliko gara, gero irabaztea nahiko zaila izaten da. Aurtien nire iritzirako Euskal Herriko bi hiru puntakoak, Orizko tartean, Galiziakoekin ibiliko gara lehiatzen.

Galziarrak, hala ere, ezin izango dira estropada askotara etorri, ezta?

Ez dakigu baina bere amsa hemengo ligara etortzen zen. Tironekoak behintzat bai.

Klub horietako arraunlariek gogo handia izaten dute hona elortzeko, kasik kobratu gabe bada ere. Askotan, saritan irabazten dutena bidaiak ordaintzeko erabiltzen dute.

Jende edo enbarkazio berririk ba al dago oraingo denboraldirako?

Momentuz ez. Amañu eta Alex Estial izuli dira, baina horiek ez dira mutil berriak. Fortunako mutil bat etorri da, Jose Mari Otamendi, berez aginarra dena, hain aspertu samarra omen zegoelako, baina ez dakigu noraino emango duen. Amilibia, Benita eta Iñori Etxeberria, berriz, bajak dira. Hurrengo urtean lau pasako dira jubentzetatik, baina gaur egun oso zaila da beste klube-tatik berriak etortzea.

Zenbat jende dabil momentu honetan klubean arraunean eta lanean?

Federatuak 80 fitxa daukagu eta gero zenbat jende klubera joaten dena, bad entrenatzera edo medikuarekin egotera. Ikustera joaten den jendea ere badago. Laguntzaileak ere badira eta ez dut Jose Luis Karraballo, Bitoriano Axuero, Jose Antonio Kakio, Bixente Gaztañazpi eta Jose Alderen lana aipatu gabe utzi nahi. Hauek lan asko egiten dute, enbarkazioak eramateko eta abar musotruk. Horiekin 100 bat gabiltza.

Arraunean egiteko posibilitaterik ba al dago jende arruntarentzat, gero estropadetan jardungo ez direnentzat?

Hori zaila da. Enbarkazio kaskarrak desegin egiten dira. Udaran klubak leku gehien behar duen momentuan edo tentsio gehien dagoen momentuan jende horrek enbarazu egiten du. Sortu liteke akaso ordutegia hortentzat, baina zaila da kluba egun osoa za-

'Ni Korta izan banintz, seguruasko, honezkero Oriotik alde eginda nintzen'

balik edukitzea. Asko agertuko balira zaila litzateke. Entrenatzera doanarentzat enbarkaderoan ez dakiemarekin ibiltzeak edo uretan sartzeko zail egoteak, zortzi ordu lan egin eta gero, tentsioak sortzen ditu.

Gaia aldatuz, nolakoak dira orain San Pedro eta Orioren arteko harremanak?

Punta-puntara aliegatzen zarenan beti harreman txarrak izaten dira zure alboan dabilenarekin. Orain dela lau urte Donibaneako arraunlariekin izan zen, aurreko urteetan, berriz. Kostaperekin eta azken urteotan San Pedorekin. Eta nahiz lehengo urtean galiziarrek Orioko udaltxean ikusi ez nintzateke hatere harrituko hainekin ere horrelako zerbait sortzea.

Zer gertatzen da Kortarekin? Askotan haserre azaltzen da eta Oriotik alde egiteko gogoa edo asmoa ere adierazi du.

Kortak Orion kontrarioak ditu, baina ez dut uste umore txartuta ibiltzen denik. Guk oso umore onean ere ikusten

dugu klubean. Baina oso exigentea da, bere buruarekin hasita, eta zerbait okertzen denean haserredu egiten da.

Asko aguantatu behar izan du, Ni Korta izan banintz seguruasko, honezkero Oriotik alde eginda nintzen. Soportatu dituen guztiak soportatzea oso zaila da, eta eskaintza oso onak badituela badakigu.

Kortak kontrarioak dituela esan duzu. Klubeko presidentea zarenetik lagunak ala kontrarioak irabazi dituzue?

Ni oso lasai bizi nintzen, eta klubean laguntzeko asmoa izan nuen herriko jendearekin harremana ez galtzeko, kanpoan lan egiten nuenaz galtzen arintzelako. Eta jendea ezagutu bai, baina kontrarioak ere irabazi ditut.

Askotan ikusten duzu pertsona bat bero-bero eginda jesukristorenak esaten, eta arrazoak pixkat duela pentsatzen duzu. Hurrengo batean beste bat azaltzen zaizu aurreko hark esandakoaren justu kontrarioa esaten. Deraz, sekula ez daukazu bide bat bilatzerik. Zuk zurea egin behar duzu edo zuk pentsatzen

duzuna.

Kritikak beti izango dituzu, alde batera edo bestera. Batenak eta bestearenak aditu eta kontraesan itzaragarriak izaten dira. Askotan geronek ere farre egiten dugu, batena betez gero bestearena ez dagoelako betetzerik.

Azken linean guk erabakitakoa egin behar dugu. Ondo edo galzki, baina guk erabakitakoa. Denekin ez dago ondo konpontzerik eta hori kirol guztietan eta herri guztietan horrela izango dela pentsatzen dut. Baina Orion arrauna nahiko 'hietea' da.

Asegarek pelotan egin duena egin beharko al litzateke arrauna indartzeko edo suspertzeko?

Gu hiru Federazioen menpe gaude (Gipuzkoakoa, Euskal Herrikoa eta Espainiakoa) eta garbi dago ez dutela funtzionatzen. Guk proposatu genuen, nahiz eta ez oso proposamen serio izan, klubean arteko elkarrekin bat sortzea, orain gauden bezala egonda ez dagoelako inora joaterik. Baina enpresa bat sortzea arraun mundurako dirua lortzeko oso zaila ikusten dut. Badakigu klubak berak kontra izango direla, zenbait klub Federazioa mugitzen dutenak direlako.

Bukatzeo, Kontxa aurten Oriora etorriko al da?

Ekarri egin nahi nuke, ez dut uste Kontxa bera etorriko denik. Lanean ari gara, baina ez estropada horretarako bakarrik. Garbi dago Zarauzko edo Bilboko estropadetan ez dabilena gero Kontxan ere ez dela ibiliko.

Haren fusioa edukitzeko lehenbizi neguko lana egin behar duzu, eta horrek ematen du indarra gero aukera hori izateko. Gaur egun jendea zer mallatan dabilen ikusita oso zaila da irabaztea. Irabazteko indarra eta zorte pixkat behar dira. Nik lehengo urtean esan nuen eskua ere moztu egin behar zuela, bi urte jarraian 'uno' ateratzen zela bigarren igandean.



'Aurtengo denboraldia oso zaila izango da eta oriotarren indarra eta laguntza guztia beharko dugu'.

AISTERRAZU da PLAZA

disco konpaktoa kalean

INAKI GURRUTXAGA

Harrigarria da musika tresna berdin batekin zenbat estilo eta musika mota jorra daitezkeen. Horren adibide garbia da *Aisterrazu da plaza* izenez kaleratu den diskoa.

Soinu diatonikoa eta doinu erakargarriak. Hitz hauetan ondo isladatzen da, nik uste, trikitixa oinarritzat duen disko honen edukia. Doinu fresko zein beroak, umerutsu nahiz goxoak entzuten dira diskoan. Aiako San Pedro bailarako mandio batean orain urte mordoak bat hasi zen erromeriak, hainbeste urtetan Aisterrazu etxearen aurreko plaza alaitu ondoren, disko honetan izan du jarraipena, jaietako soinu festa alde batera utzi gabe.

Bestakile, doinuak bakarrik ez, bolumakdf ezberdinak ere nahasten dira lan bikain honetan. Mundu honetan urte asko daramaten trikitilariak badira, Hau da Laja eta Landakandaren kasua; disko honetan Aisterrazuri propio ateratako kanta baten bidez hartzen dute parte. Bikote hau da diskoko beteranoenia. Markos Landa anoetararekin batera. Honen ahoko soinuarekin eta bere bi semeek, pandero eta baxuarekin, artinarin bat gehitu diete diskoari. Baina badira gazteak ere betiko trikitixaren tanke- ra duten piezak eskaini dituztenak. Koldo eta Arantxa edo Agurtzane Elustondo kasu. Agurtzane Elustondok Andoni La-



rrañaga panderojolearen laguntzaz Trikitixion kanta jotzen dute.

Mexikana gisako doimurik ere bada, Errekalde anaien eskutik. Bi anala bixkiok berrogi urte bueltako gazteei ziru aski gusiatoko zati kantu bat eskaintzen dute, *Zeruan Egan*. Honen tanke- rako abesti bat, baina nolabait esateko modernoagoa, Malxa eta Itzarrek eskaintzen duten eta jada entzute handia duen *Besamel eta Pastela* da. Baina ez da bera disko honetan kanta bat duen Ore- jatar bakarra, izan ere bere aitzpa gaz-

teerak, Amalak, Kristina Solanorekin batera *104 ilargi bete izena* duen abesti- tian sartu dute, balada polit bat.

Betiko trikitixa oinarritzat hartuz eta bestelako instrumentuekin konbi- natuz datorzkigu zenbait talde. Ezgar- kit talde ezaguna *Maria Inesi* porru- sarekin dator, sarritan entzun dezake- gun piezarekin. Dagoeneko zer esan ugari eman duen *Gozategik Eustakio* trikitixa umoretsua eskaintzen digu. Baina ez dira Asier eta Ainhoa Gozate- gi disko honetako oriotar bakarrak; hor dago *Azkonobieta* ere. Muxotriak taldean esku soinu astinduz. Bertan *Arieketan* arin-arin bizkorra sartzen du. Beste pieza bizkor bat Joseba Ipa- rragireren *Burdineta* landatigo azka- rra da, kategoriakoa.

Diskoa kanta batean primeran la- burbiltzen da. Zabale anaien Aiste- rrazu abestian hain zuzen. Bertan, trikitixa eta panderoaz baliatuz, betiko trikitixaren kutsua duen eta trikitixa aro berriaren eragina ere nabarmentzen zaion pieza eskaintzen digute.

Behin entzun nion norbaiti nahasketa denak ez direla *cocktail* izaten. Nire alde- tik ez diot disko honi horren aitzakiarik aurkitzen. Oso musika mota ezberdinak entzunagatik, disko berietan homogeneoa dela deritzot. Opari bikaina, hainbeste trikitilari ezagunen lehen agertoki izan den Aisterrazurentzat. Jarrai dezala, beraz, trikitixaren harrobi izaten.



Peiotari, 1 ☎ 83 25 65

- HANALDEko kide (HARagi NATurala- ren ALDEko Elkarteak)
- Kalitatezko haragia. Guk hazitako txekorrak. Txekorren jatena garrantia- duna da (ISO 9001)
- Guk egindako txarkuteria: txorizoak, urdaiazpikoak, solomoak...
- Lehen saria Beasain eta Tolosako Odolki Lehiaketetan

GABON

Plater konbinatuak,
pintxoak eta txokolatadak

Telefonoa: 83 06 09

OLIDEN HARATEGIA

EUSKO GUDARI, 2
TFNOA 83 10 86

PA
C
SO
KA

Haurrentzako oinetakoak

San Nikolas, 9 behea
Tfnoa: 83 28 05

URANGA BURDINDEGIA

EUSKO GUDARI, 7
TFNOA 83 12 36

TXABOLA BERRI

Hasieran Errekalde zuen izena baserri honek. Baina, gero, Txabola geratu zitzaion, baporeek sareak eta beste zenbait tresna bertan gordetzen zituztelako. Hura zahartu ondoren, Txabola Berri eraiki zuten aldamenear, hain zuzen guk bisitatu dugun baserria.

**IÑIGO FERNANDEZ
AINARA PEÑA**

Ortzaika eta Antbarko Portuaren artean dago Txabola Berri. Bertan Maritxu Arruti —eskumina berarentzat—, honen koinata Frantziska Artola eta honen alaba Izaskun eta biloba Leire Arruti bizi dira.

Kalean bizi ondoren, Joxe Mari Arruti erosi zuen Errekalde orain dela 60 bat urte. Hau zahartzean ondoan Txabola Berri izango zena eraiki zuten. Duela hamahiru urte inguru hola zuten berez erortzen ari zen Errekalde edo Txabola zaharra. Hau ibai ondoan zegoen eta baporeek bertan gordetzen zituzten heraien tresnak. Noizbait, ibaiak gainezka egin, baserria urez bete zen eta bertako zenbait behi ito egin ziren. Honela, Txabo-

laren egoera txarra ikusita Joxe Mari Arruti Txabola Berri eraiki zuen duela 45 bat urte. Joxe Mariren lau seme-alaben artean banatu zituzten lurrak eta baita Txabola Berri ere; horregatik, lau etxebizitza ditu.

BASERRI MODERNOA

Gaurko Txabola Berri ezin esan daiteke baserri-baserria denik. Bateik, ez dute abereirik, eta bestetik, lantzen duten lur zati txikiak etxerako barazkiak bakarrik lortzen dituzte.

Baserria gauza ederra dela diote, baina egiteko asko eta diru gutxi ematen omen du. Horregatik garai berrietara egokitzen ari den baserria dela

esan genezake; baratza den lekuan igerilekua egin nahi dute gaztetxoek; ikultua zen lekuan garajeak daude; txinirik ez dute, mikroondasa balizik. Gainera, Frantziska oso gustora omen dago telebistaren telamandoarekin eta kanpoko zaratatik babesten duten, leiho *silenzioso* hortekin. Ez dute baserriko bizimodua, baina kalekoa ere ez, eta naia dute beren bizitzeko era lasaia.

AGROTURISMOAK BASE- RRIAREN ERRELEBOA

Txabola Berritik metro batzuetara, Joxe Mari Arrutiren —Frantziskaren semea— Agroturismoa martxan dute.

Izaskunek esan zigun be-

zala, hotel baten moduan funtzionatzen du, baina merkeagoa da. Bertan gelak, sukaldaria eta egongela bat dute edonork erabilizko. Agroturismoak etorkizun oparoa omen du, jende asko mugitzen baitu. Aia eta Orio inguruan gero eta baserri gehiago dago horretara jarrita. Badirudi baserriek duten irtenbideetako bat Agroturismoa etxe bihurtzea dela.

Bukatzeke esan nahi dugu, KARKARAK utzi egingo diola, honenbestez. Gure baserriak sailari. Beraz, hau da argitaratzen dugun azkena. Oso gustora aritu gara eta irakurleek guk disfrutatutakoaren erdia gozatu baldin badute, sari ona da guretzat.



**Txabola Berri
baserriko alde
bat ikusi
dezakegu
Izaskun eta Joxe
Mari Arrutiren
seme-alabekin.**

☎ 830089

ODITZ

Horma zabaleko oinetakoak
Gizon eta emakumeentzat

Pintura Inaxio Andres
orokorrean eta Iturbide 12, 4. C
enpapelatze 83 20 69
lanak egiten 909 40 58 98
ditugu

ANAY
BOUTIQUE
Zure gustoko arropak

Estropalari kalea, 12 - Telef. 1 32 81 6



Roser Ylla eta Mariano G. de Txabarri ekainaren 7an ezkondu ziren Bartzelonako Hostaletz herrian. Orioko familia artekoak ez ezik lagunek ere egin zuten bidaiia luzes bertan izateko eta hortxe dituzue argazkia Roser eta Marianorekin.

Zuek ere zuen ezkontzako argazkia — edo seme-alaba jaioberriarrena — txoko honetan argitaratzea nahi baduzue, bidaiuguzue eta jarriko dugu. KARKARAREN buzoian utz dezaketzue edo, bestela, taldekoren bati eman. Bat baino gehiago iristen bazaigu, lehenbizi ailegatu zaigunak izango du lehentasuna.

DEMOGRAFIA

JAIOTAKOAK

Orion

Mikel Pérez Oñden Larrañaga, apirilaren 24an
 Maria Gutiérrez Ávila, maiatzaren 22an
 Anne Irureta Castro, ekainaren 17an
 Olatz Lucas Zubiaurre, ekainaren 17an

Aian

Ez da jaiotakorik izan

EZKONDUTAKOAK

Orion

Iñaki Manterola Gaztañazpi eta Deisi Frias Bravo, ekainaren 7an

Ramon Manterola Aragón eta Miren Larrañaga Elizegi, ekainaren 7an

Mariano G. de Txabarri Iribar eta Roser Ylla Jimer, ekainaren 7an

Jose Luis Lizaso Gurmubaga eta Maria Irizo Lareki, ekainaren 11ean

Aian

Karmelo Amutio eta Josune Agirre, ekainaren 28an

HILDAKOAK

Orion

Ez da hildakorik izan

Aian

Ez da hildakorik izan

zorionak

Orio eta Aiako baserritarrei

Gure baserriak sailari bukaera eman diogu zenbaki honekin batera. Salla osatzeko, baserritarren laguntza beharrezkoa izan dugu, eta banan-banan egin ditugun bistetan, laguntza ezezik, harrera eta jarrera ezin hobea ere jaso dugu zuengandik.

Barkamena eskatu nahi dugu KARKARAn azaldu gabe geratu direnei, baina denengana ezin iritsi eta ezagunenengana jo dugu. Gure esker ona guztioi.

zoriotsarrak

Hondartzako sarbidea

Uda garaia iritsi da eta plaja handiko oinezkoentzako sarbidea oso egoera txarrean dago. Mariñela zaharreak kristalak puskatuta daudela eta etxeko beste zatiak erortzeaz, burni zaharrek zintzilik; benetan, oso peligroroso geratzen da normalean oin hutsik ibiltzeko izaten den pasabide hori.

Beraz, dagokionari pixkat txukuntzea eskatuko genioke ezbeharren bat gertatu baino lehen.

Orain dela... **25 urte**

Ekainean, aurten ere, urtero bezala, San Pedro jaiak ospatuko ditugu. Baina orain dela 25 urte, 1972ko ekainean, alegia, San Antonio, San Juan eta San Pedro ospatu ziren gure herrian.

Egia da, San Antonio eguna bakarrik arrantzale zaharren festa izan zela, eta hauek meza eta bazkaria besterik ez zutela izan, baina aurten ezta hori ere.

San Juan bezperan, berriz, meza izan zen arratsaldeko bostetan. Gero, gaueko bederatzietan afaria Loretxu jatetxean eta, ondoren, Orioko Ibaika taldearen emanaldia San Juan kaleko plazoletan.

San Pedro jaietako egitaraua ondorengo hau izan zen:

Ekainak 29, San Pedro eguna

08:00etan: Txistulariak

08:30etan: Buruhandiak

09:00etan: II. Txirrindularitza Txapelketa Haurrentzat

10:00etan: Meza

17:00etan: Gipuzkoako Outriggers Txapelketa

18:30etatik aurrera: Dantzaldia Pocker taldearekin
23:00etan: Musikaren atsedenaldian, su artifizialak

Ekainak 30, San Pedro bigarrena

08:30etan: Txistulariak

09:00etan: Sokamuturra

16:00etan: Plater tiroketa Bikamiotan

17:30etan: Gipuzkoako haurren erremonte txapelketa finalak.

18:30etatik aurrera: Berbena Pocker taldearekin.

Uztailak 1. Haurren eguna

08:30etan: Txistulariak

09:00etan: Sokamuturra

10:30etan: Colorin Txotxongiloa

11:00etan: Herri mailako esku pilota txapelketa

13:00ean: Barruan opariak zituzten globo eta bomba japoniarren leherketa

18:30etan: Pocker taldearen musika

GURE TXOKO

TABERNA

ARITZAGA KALEA



ORTZAIKA
JATETXEA

- * Bataioak
- * Despedidak
- * Jaunartzeak
- * Ezkontzak

Tfnoa: 83 32 51 / 83 30 46 Ortzaika

AMILIBIA



taberna



- Gosariak
- Pintxoak
- Sokatak
- Kaxuelitak
- Plater konbinatuak

Aritzaga, 17
Tf. 83 30 47
9800

MAKAZAGA
Igeltseritza

- ✓ Igeltseritza orokorra, denetarik egiten dugu
- ✓ Presupuestoak eskatu konpromezurik gabe

Lan txukuna eta merkea

☎ 83 59 00

Emakumeak eta gizonak

San Pedroak badatuz eta ondoren San Martzialak, Inungo jaak. Batek daki zer gertatuko ote den hango alardean, eta zer irailan Hondarribikoan, gu estropadetan murgilduta gauden bitartean. Joan den urtean borroak izan ziren emakume batzuk gizonak bezala festan parte hartu nahi eta beste batzuk (gizon eta emakumezkoak) utzi nahi izan ez zirelako. Aurten bi aldeetatik saiatu dira bere arazoak agertzen eta besteak konbertitzen. Baina ez batzuk ez besteek lortu ez dutenez, denak indartu egin dira beren arazoetan eta geroa ezin beroago ageri da festen atarian. Emakumearen parte hartzearen aldekoek eskubideak apatzen dituzte, kontrakoek tradizioa.

Orion ez daukagu alardarik. Baina aurten tanborrada dugu San Pedroan, eta bertan gizonak eta emakumeak aterako dira. Gure herrian, tradizioagatik, garrantzirik handiena duen kiriolean, arraunean, aspaldiko urte hauetan emakumeak ere ikusten ditugu. Eta gara bateko kinto bazkariak, soldaduzkia urte beren egindakoenerik, lekua egin diete azken urte hauetan urte bertan jotakoenerik, gazteen artean behintzat. Eta, jakina, haietan ez bezala, hauek gizonazkoak eta emakumezkoak batera jotzen dira.

Ni Onoko eskolatan ibili nintzenean mutilak eskola batean eta neskek beste batean egoten ginen. Hori ere aspaldi aldatu zen, konpondu zela esango nuke nik. Horren ondorio izango da, noski, orain gazte kuadriletan neska mutilak batera ibiltzes.

Gauzak ederki aldatu dira urte batzuetatik hona. Oraindik gogoan dut amaritzaleen kofradia idazkaria hartzeko egindako desaldiko baldintzen artean oriotarra eta gizonazkoa izatea jami zuela eta, era horretan, indarlean zegoen legeria haustearekin batera emakumearen kontrako bazterketa izugarria egin zuela. Baina harrigarria ez zen hori izan, emakume bakar batek ere horren aurrean ahotsa ez alkatzea (publikoki behintzat) izan zen harrigarria.

Iruditzen zait, zorionez, horiek iraganeko kontuak direla eta alde horretatik hain egoteko moduan gaudela. Emakumearentzat, oraindik ere, lekunik ez dutenak soziedadek dira. Eta Hondarribian eta Inunen badira holakoak, baina Donostian ere. Ea noiz sortzen den Orion soziedade bat sexuagatik jendea bereizten ez duena. Seguru nago, laster!

Itzi Iturain

KANPOAN daudenak



Pilartxo Maritxalar Azpiroz

Pilartxo Orion jaiak zen, baina Argentinako Azul hirian bizi da aspalditik, jaietarik urritan. Onoko lehengusu Maria Jose Ezaginerik martxoko KARKARA bidali zion eta Pilartxo irakurri eta emozionatuta, eskutitza idatzi digu. Askok gustatu omen zitzaion, aspaldiko garaik gogorazki eta berri bisitan hain zuten etortzeko gogoak puztu. Gainera erdi ahaztuta omen duen euskera freskatzeko ere, biko izan omen dio. Bere eskutitz horretan garbi gertatu da bizi-bizirik dituela euskaleroak, eta Orión dion maiztasuna.

Aita Barramonu basemikoa zuen, ama Olatziokoa. Pilartxo gerra ondoren joan zen Argentinara, neska gaztea zela, anaia Martzelinorenkin batera, honek 17 urte bete aurretik, orduan hiru bit urte irauten zuen soldaduzkari ihes. Lehenetik han bizi zen osaba Frantzisko Azpirozengana joan ziren, honek konbidatuta.

Itaialar batekin ezkondu eta bi seme-alaba izan zituen: Ana Mari eta Jose Luis. Orain seme-alabak bakarrak bizi dira. Hiru mila hektareako ranchoa du eta

Pilartxo hilabete batzuk pasatzeko asmoa zuen Argentinan, anaia hango bizimodura ahitu arte. Baina ahiturak desberdinak izan, anaia ahitzen ez eta Pilar ere bertan geratu zen. Gaur arte.

hiru mila ganadu-buru, haragitarakoak. Rantxo hiru alometan banatuta du, haietako biren zena Gure Txokoa eta Txumuta.

Pilartxo ahurra bai, Kontxo. Buenos Airesen bizi da eta petroleo erpresa baten jabea da. Hain gurasoekin batera joan zen Argentinara, Pilartxoengana. Gurasoak hain hil ziren, orain dela urte batzuk.

Oso lurralde oparria eta jende eskuzabalekoa omen da Argentinara, eta gustori bizi da La Pampa zabalean. Hala ere ez du galduta loturarik bere txokorekin, eta landareekin ere, Pilar bi alde izan da hemen, bitartean, eta Onoko familia batzuk izan dira han. Duela lau urte Olatziokoa loba Jantxo Ezagineri joan zitzaion bitartean, emaztearekin, ezkonberitan, Jantxoaren bidetz jain dugu Pilartxoaren ranchoak euskalduna ematen duela: hermetik eraman dako, uztairik, abarrik, Onoko kuadro bat (hango pintore bati eginaraztakoak).

Laster berri etortzekotan da, aita Ana Marirekin batera. Orduan KARKARAKoekin egoteko ere astia hartu nahi da. Konforre, zain gabatuz. Eater arte.

Ernioko gurutzeak 50 URTE

Abuztuaren 31n Ernio mendiko gurutzeak 50 urte egingo ditu. Aiarrek, asteasuarrek eta errezi-darrek egin zuten gurutzea fede eta lan izugarri baten emaitza dela dudarik ez dago. Hori dela eta, garai hartan egin zen lan handi eta neketsu hura omendu eta ospatu nahi da.

**ISIDRO LERTXUNDI
'ERNIO ZALEAK'**

Lanak nolabait hasi egin behar eta Aiako talde bat asteasuarrekin bildu zen. Bilkura hartan gurutzea eta bertan dagoen tximistorratza konpontzea erabaki zen; baina, orain dela 50 urte bezala, zerbait gehiago egiteko irrikia ere bazegoen eta gure zahar eta ez hain zaharrek ezagutzen zuten borda —orain eroria— berriro eraikitzea pentsatu zen.

Zer ederrago aterpe eta estalpe bat edukitzea baino Ernio mendiko aire eta eramitsi zakarretatik gordetzeko?

Baina borda Errezilgo lurretan zegoenez eta gurutzea Albizturkoetan, bi herri hauei ere parte hartzeko gonbidapena egitea pentsatu zen. Harantz eta homantz genbiltzala 5B helburua programan bilzen diren zortzi herriak bildu ginen, hau da: Errezil, Bidaña, Albiztur, Hernialde, Abiza, Larratul, Asteasu eta Aia. Denok sendo bildu ginenean, lan hauek egitea pentsatu

zen. Omendu behar den gurutzea konpondu, orientazio nahasia txokundu, borda berriro alizatu, burri-uztaiak dauden gurutzea konpondu, herri bakoitzak Erniora doan mendi bide bat markatu bere gida-panel eta guzti, eta azkenik, Ernioko kamiseta batzuk egitea.

Lan guzti hauez gain, abuztuaren 30n garai hartan lanean ibilitako lagunei omenaldi bat egitea eta abuztuaren 31n jai eder bat antolatu Ernio eta berarekin duen Zelatun elkar lotuz.

Lanean hasteko zortzi herrien artean elkarte berri bat sortu da, Ernio Zaleak Kultur Elkarte. Dudarik gabe, lanaz gain, elkarte honek zortzi herrien arteko lotura sortu du.

Lanik handiena borda berriak zeukan, eta bera izan da lehen ekitaldia. Orain 50 urte bezala, lanik gogorrena Ernioko gailurrera materiala igotzea zen, eta horretarako helikopteroa kontratatzea pentsatu zen. Beste era batzuk

ere aztertu ziren —mandoz edo motordun karretillaz—, baina azkenean azkarrenari heldu zitzaion. Gurutzea egiten ari zirenei helikopteroaren kontua esan zitzaieanean, *katxarro hori guk harropatu izan bagendu* erantzun ziguten. Helikopteroak bere lana bukatu zuenean, berehala hasi zen txabolaren eraketa lana: zimentuak hartzea, harri biltzea, eta abar. Bertako harria txarra zela, baina *hargin onak harri txarrak ez*, eta normala zen bezala, paretak bertako harriarekin altza zitzaio.

Dudarik ez dago gurutzearen garaiko lana eta gaur egun egin den lanaren gogortasuna ez dagoela konparatzerik, garai hartan dena gliza-indarra eta animala indarra izan zen; gaur egun, bertze, teknika eta aurrerapenaren laguntzak gizonari lana asko erraztu zale. Gaurko gazteei esan egin behar orduan horrelako lan bat egin behar dela garai hartan bezala!

Bordaren lanak aurrera-

tzen ari ziren bezala, gurutzearekin hasi zen. Honek ere bazuen lana. Urte batzuk baziren konpontzea egin zitzaio la eta nahiko izorratuta zegoen. Hartu zitzaio zeuzkan pitzatuak eta tximistorratza berria jarri zale. Askok ikusi izango zuten bezala, tximistorratzaren kablea lehen airean zuten eta oraingo teknikoek diotenez lurpean behar omen zuten eta horrela jarri da.

Lan hauek aurrera doaz. Egin gabekoa ezin jarri eta beste batean kontatu beharko lanen amaiera.

Ernioko festa

Abuztuak 30

- ✓ Gurutzea egiten ibili zirenei omenaldia
- ✓ Meza Zelatuneri
- ✓ Bazkaria trikitilari eta bertsolariekin

Abuztuak 31

- ✓ Meza Ernioko gurutzean
- ✓ Bordaren bedeinkapena
- ✓ Trikitilariak, bertsolariak... Zelatuneri

Ernioko borda zaharra eraberritu egin dute gurutzearen 50. urteurrenako ospakizunetarako. Material denak helikopteroz igo dituzte tontorrera.





EZETZ EZAGUTU! lehiaketa

1957ko festetako argazki honetan Bordatxo aurrean azaltzen da guraseme kuadrilla bat, hamaketakoa egitekotan.
Kuadrillako bosten izen-abizenak asmatu behar dituzue.

Bigarren galdera: **Zein dira aurten trainerurako baja izango diren arrauntariak?**

Orain arte egin dugun bezala, afari bat zozketatuko dugu asmatzaileen artean.
Afaria: **Itsas Ondo jatetxean** izango da.

Guoan izan udan ez dela KARKARA aterako eta, hortaz, lehiaketan parte hartzeko epe luzeagoa duzuela oraingoan.

Erantzunak **irailaren 20rako** bidali behar dizkiguzue, helbide honetara:

KARKARA aldiakana Ezetz ezagutu! lehiaketa. Herriko plaza. | (Udaletxe atzeko karkara)

Aurreko irabazlea Naiara Esnal Huegun onotarra izan da.

Hau da eman zigun erantzuna: Jose Frantziako Esnal, Ramonita Esnal, Jose Maria Esnal, Josefa Inazio Esnal eta Begoña Bengoetxea.
Bigarren galderaren erantzuna hau zen: 59 urte ditu Juanita Iparragime, Aiako biramonak.

Itsas-Ondo

Bataioak, jaunartzeak, negozio eta talde bazkariak



 13 11 79 (herrikoa)
83 39 61 (hondartzakoa)

antuko, aztopoa jartzen diote agbulariek. Beteroa izateak ote dauka guztiaren erria? Auzkalof

UEMARI (Udalari Euskaldunen Mankomunitate) egokitu zaito azken erasoak parratzen. EUDEL erabili nahi dute harretarako. UEMA osoo funtzionatzen ari da eta. EUDEL-en bidez, aztopoak jarri nahi dizkiote. Horrela, beste borroka bat dago hasten Euskal Herriko udalen artean, herria euskalduntzeko efizientzaren premia dagoenari. Berriz ere, berriturik ekar beharke diegu euskaldunok erronka horri, zorizartzez.

Izan ere, beti horrela gabilta, Euskalduntzeko herri mugimendua hasi zenean. AEK sortu zen; handik zenbait urtetara, HABE azaldu zitzaizun, aurrekoaren helburu berberekin. UEUekin ere (Udako Euskal Unibertsitateak), beste harenbeste: administrazioak EHUko udako ikasleak antolatzen ditu; hori bai, euskarazko eskaintza 'nahiko urriarekin', bidez ere karpakoentzako dira eta. Euskaldunen Egunkaria sortzeko garatan gataza bera epliten abalegindu ziren; eskatu behar ziguten egunkari bat, bakoitzaren etxera bidalirik; eta doan, gabera.

Azken finean, denok elkartuta joan beharrean, sakabaxatutik ibil gaitzen nahi dute. Balzuek beti diru premiata: besteak, berriz, sasak soberan.

Zer hobeto litzateke mugimendua sozialaren gisako bat izatea baina —kolore guztiak jendea elkartzen duena—, euskara alor guztietan aurrera ateratu dadin?

EUKENI SANTAMARIA

Bazen behin eskola bat...

...euskalduna, publikoa, bakia... handituzko inguru horretan, inguru lasai eta zoragarriari kokatu...
Ipuina kontatzen ari nintzen, baina nire kezkek errealitate mingotsa ekarri nahi. Ezin ipuina kontatu, dagoena baizik; eta, jakina, nire ikuspuntia.

Nik baditut ametsak, eta horien artean hau: Orión eskola euskaldun, publiko, bakar edo elkartua izatea, herriko haur guztiak elkarrekin jolasteko eta lan egiteko aukera emango diea. Baina, ametsak ametsak, momentuz ezin egia bilhurtu.

Orainoz, bakoitza geure bidetik goaz: aurrerapausoak emanez, geure proiektua defendituz, heziketaren kalitatea habetu nahian. Horretan ari gara herriko bi

ikasleterak: bat harria eta besteak (akia).
Gauza bat konpartitza da, izatean, 'cesión de aulas' deitzen diote. Nik, berriz, zapalkuntza deitzen diot. Zergatik? Batetik, inposatu egin nahi delako; bestetik, handi baten beharrak asetzeko, (biki baten eskubideak alde batera uzten direlako; eta, azkenik, gure eskolak duen antolaketa hankaz gora joango litzatekeelako.

Nik, guraso natzen aldetik, ez ditut galdu nahi psikomotritzitateko gela, liburategia, laboratoriora, audiobisualtetako gela... Zergatik murriztu aukerak? Ez nuke galdu nahi, ezta ere, bakia izateak daukan abantailak: giro lasaian hezitzea. Kalitatezko euskal eskola defenditzen dut. Horretan ari gara behintzat!

Bi galdera etorzen zaizkiz haurra:
Alkate jaunari: aldiare izateak eskubide guztiak ematen ote dizkizu kolektibo baki baten eskubideak zapaltzeko? Gu ere herritarrek gara. Zergatik ote da gehiengoaren eskaera gestioatzeko azkar mugitzen zarela eta gehiengoaren kezkek, berriz, ez dituzula kontuan hartzen? Prepotentzia, besteak beste, detutako niok nik horri. Guztiak alkate izateko aukeratu zituzten, bada.

Mari Carmen Marin, Hezikuntzako delegatua: zeri eskola publiko defenditzen ote duzu? ez al da zure betebeharra eskola publikoa mantentzea? Zer diozu: erabaki politikoa dela? Eta non gertatzen dira kalitatezko heziketa, haurrei beharrak, gure kezkek...

Zaraguetako eskola bezirik dago eta lanean ari da. Errespeta gaitzazue!

MARIBEL BRUNO,
ZARAGUETA ESKOLAKO GURASO BAT

Emeterio Iribarri

Orioko nekazal lurrean ez dago etxerik eraikitzen, nekazal ustiapenarekin zerikuski duena ez bada. Zak gezurtatzen jo nautzaz, herriari argitu nahi diot nik ez dudala gezurtik esan.

1988ko martxoan aurkeztu zuten udaletxean obarrizko proiektua, San Martin ermitaren inguruan nekazal familiabakarreko etxebizitza egiteko.

1989ko azialdean aurkeztu zuten, Udalaren eskutiaz, dirudibenez, J. A. Urresti Osa injenieru agronomoak egindako nekazal proiektua sagastiak landatzeko eta sagardogintzarako.

1990eko uztailerako, agiri horiek aztertu eta denon begi bistan zeudela, eraikitzeko baimena eman zitzaion eskarigileari, udal arkitektoaren aldeko informarekin, Baimenarekin batera, hala ere, hiriako haur eskola zuzailan, besteak

beste: San Martin inguruko 703 m2 lur saltzea Udalari. Hori guztia hitzarmen baten bidez sinatu behar zen, baina hori ez zen INOIZ gertatu.

Gerotik, etxetik aparte zihoran sagardotegi baten proiektua aurkeztu zuten. Etxerren eta eraikitza berriaren tamaina neurtu ondoren, 0.2m3/m2 ko neurrien barruan sartzen zirela ikusi genuen.

Egia da sagardotegiak ez dituela baimen guztiak betetzen. Baina, bestalde, Udalak denek lagundu behar die eta, bidez ere, aldiarteko ekonomia eta lanpostuak sortzen dituztenet. Eta ez zaitez kezkatu. Emeterio, jardura horrek ere bere legeko obligazio guztiak beteko ditu eta (GOKA) espedienteak dituen neurriak, sagardotegiak landatzen, talareak eraikitzen...)

Eta, azkenik, honetan guztiak garrantzitsuak jaita ikusten baduzu, ez al da izango fraileak uste duela denak hiru antzekoak direla?

Nire aldetik gal hau biskatuta dago.

RAMON ETXEBERRIA

Zuzenketa

Aurreko KARKARAKO 6. orrian informazioa eman genuen Orioko barrako mutur berriaren gainean; eta, bertan, akats nabarmen samar bat egia genuen: titularraren adierazien gemaiez, barrako lanetan 1.872.750 PTA gastatu dira.

Tiru; ez litzateke txarra, egia balitz; baina, benetan, handixeago izan da kostua: 1.872.750.000 PTA.

Erreportajea ere, gaizki jarri gertuena bi izen: batetik, kamioizalearena eta, bestetik, okinaren. Benetakoaak hauek dira: Altor Iturralde kamioizalea, eta Iñigo Alkorta okina. Barkamena eskatu nahi diegu bieti.

Besterik ez: ondo ondo pasa festak eta udara. Iraila arte.

KARKARA TALDEA



Karkarak ez du argitaratuko izenik gabe datoren guturrik. Egileak hala nahi bada, ezterrekin argitaratuko dugu; baina, beti, guk egilea nor den jakinda.

Karkarak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien edota iritzien erantzukizunik.

Karkarak argitaratutakoa berri eman daitene, osorik edo zatika, baldin eta iturria aldatzen bada.

Karkarak bere egiten du eskatutako laburtze-ko eskubidea.

